


ARRASATE

PRESS


Arrasate 1989ko Urtarrilak 5 47. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



**Andoni
Zubizarreta**

Futbolaren gailurrean



A r r a s a t e
K i r o l a k

Kontzeziño kalea, 8 - ARRASATE - Tfnoa: 79 46 12

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak:

Arrasateko Eskualde-Ospitalea	795300
Igualatorioa	790500
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	793900
(emakumeak)	794411
Buru osasunerako zentrua	799011

Gurutze gorria:

Bergara	765576
---------------	--------

DYA

Antzuola	766291
----------------	--------

Anbulatorioak

Arrasate	791357
.....	799722
Oñati	780852
Eskoriatza	798896
Aretxabaleta	797458
Aramaio	(945) 455116

Anbulantziak:

Gipuzkoako ambulanziazak	458744
--------------------------------	--------

Udaltzalgoak:

Oñati	780411
Bergara	761469
Arrasate	791439
Aretxabaleta	791052
Eskoriatza	790322

Ertzantza:

Arrasate	797199
----------------	--------

Suhiltzaileak:

Udal taldea	790900
Udal taldeko suhiltzaile burua	792072
Zubillagako Eskualde-Parkea	782800

Matxurak:

Urak (udal zerbitzua)	790900
Elektrizitatea (Iberduero)	790581
Gasa	900 400 523
.....	79 78 44
.....	79 76 78

Garraloak:

Taxiak	791222
P.E.S.A.	791419

Hirugarren adinarentzako zentruak:

Iturbide Egoitza	797211
Abaroa jubilatuaren egoitza	798157

Kontsumitzailearentzako informazioa:

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	798777
---	--------

5. OSTIRALA

— Zinea: Alai: "No me chilles que no te veo". 7 eta 9,30etan.

Novedades: "Sexo, mentiras y cintas de video" 10,30etan.

— Errege kabalgata, herriko kaleetan zehar ibili ondoren Monterronen amaituko da.

— Goardiako farmazia:
Azkoaga, Ferrerías.

6 LARUNBATA

— Zinea: Alai: "No me chilles que no te veo". 5, 7,30 eta 10etan.

Novedades: "Sexo, mentiras y cintas de video" 5, 7,30 eta 10,30etan.

— Goardiako farmazia:
Español, Iturriotz.

7 IGANDEA

— Zinea: Alai: "No me chilles que no te veo". 5, 7,30 eta 10etan.

Novedades: "No mataras al vecino". 5, 7,30 eta 10, 15etan

— Goardiako farmazia:
M. Corcuera, Musakola

8 ASTELEHENA

— Zinea: Alai: "No me chilles que no te veo". 7 eta 9,30etan.

Novedades: "Sexo, mentiras y cintas de video" 7,30etan.

— Goardiako farmazia:
Irizar, Erguin.

9 ASTEARTEA

— Zinea: Alai: "No me chilles que no te veo". 7 eta 9,30etan.

— Goardiako farmazia:
L. Amezua, Sta. Marina

10 ASTEAZKENA

— Zinea: Alai: ez dago sesiorik

— Goardiako farmazia:
A. Ruiz, Erguin.

11 OSTEGUNA

— Hitzaldia: "Euskal Herriko ekonomiaren bilakaera: gaur egungo egoera eta desoreka nagusiak". Hizlaria: Gontzal Barasorda, LAKko Ekonomi Ikerketa Sailaren arduraduna. 7etan Monterroneko hitzaldi aretoan.

— Zine klub: "Inquietudes". Zuzendaria: Alan Rudolph. 8,30etan Amaia Antzokian.

— Goardiako farmazia:
Morales, San Andres.

IKASTAROAK

Arrasateko IMI zentruan, Symphony (lehen urratsa). Urtarrilaren 8tik 12ra bitartean. Izen emateak Arrasateko IMIn.

Pakete integraturako sarrera, orri elektronikoa, gestiorako grafikoak, datu-basea, testu-prozesua, bestelako moduluak, lanen integrazio eta automatizazioa

Arrasateko IMI zentruan, Symphony (bigarren urratsa). Urtarrilaren 22tik 26ra bitartean. Izen emateak Arrasateko IMIn. Datu baseen sarrera, fitxategien mantenimendua, informazio bila, txosten inprimaketa, barne-egitura, bi datu-baseren integrazioa, dokumentuak sortu eta aldatzea, testu-prozesua, kalkulu-orria.

ERAKUSKETAK

Zeramika erakusketa. Elorrioko Arriola aretoan, Imanol Aranburu arrasatearraren zeramika lanak ikusgai. Zine emanaldiak baino bi ordu lehenago eta bi ordu beranduago.

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Arrasate pasealekua, 3-Bis, behea.
20500-ARRASATE -TF.79 71 64

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Jon Andueza
Bego Zubia

Publizitatea: Josune

Maketazioa: Goio Arana

Erredakzio-kontseilua: Jose Felix
Diaz de Tuesta, Harry Zaraia, Iñaki
Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez de
Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele
Zuazubiskar, Patxi Montero,
Juan Martin Elexpuru, Mikel
Arregi, Eukeni Olabarrieta, Arantxa
Lizaso, Gerardo Markuleta,
Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai,
Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Mila
Galafena, Blanka Jauregi, Klarion
Taldea, Joseba Vallés, Karmelo
Uribarren, Iñaki Aranburu,
Hankamotzak.

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Harpidetzak: Arrasate pasealekua 3
Bis, behea. 79 71 64

Copyright: ARRASATE PRESS

Tirada: 7.400 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

ARRASATE PRESSEk ez du bere gain
hartzen aldizkarian adierazitako esanen
eta eritzien erantzunkizunik.



Kanpodabiaziniue

Atzerritik zehar ibiltzen garenean, gure gogoak zorrotzen erabili behar duen lanabesetako bat hizkuntzari dagokiona da, inolako dudarik gabe. Turismo egiten nahiz lan arazoetarako, bisitatzen ari garen herriko hizkuntza menderatzeak ateak irekitzen dizkigu eta bidaia bera ere askozaz probetxugarriago bilakatzeko da. Babeleko dorre ikaragarria den mundu honetan elkarri ulertzeko gehien erabiltzen den mintzaira ingelesa izanik, badira beste batzuk ere giltz-hizkuntzatzat kontsidera daitezkeenak eta guzti horietaz baliatzen gara gure elkarrizketetan, ahal dugun erarik hoberenean.

Gertatzen zaigu, sarri gertatu ere, gogoan dugun mezurako hitz egokirik ez aurkitzea. Eta, maiz, biderik bihurrienetatik abiatzen gara mezua ulergarri izan dadin. Orain hurrengoan, esaterako, Tunezen nengoela bertako fruitu nazionala ei den mandarina dastatu nahi nuen jatetxe batean. Igaliaren izena ezezaguna zitzaidalarik, *"Un fruit rouge, plus petite que l'orange..."* hasi nintzaion kamareroari, ulertuko ote zidan itxaropen handirik gabe. *"Oui monsieur; vous voulez la mandarine!"* moztu zidan zerbitzariak, nire

kalbario hartatik lehen baitlehen askatu nahian, nonbait.

Beste behin, nire adiskide batek Frantziako Auñamendietan istripu txikia izan zuen eta farmaziara hurbildu zen esparadrapu bila... baina frantsesezko hitz egokiren faltan *"je vous une bande adhesive pour les blessures"* eskatu zion farmazialariari. Horrek, nire lagunaren estualdiaz jabeturik, *"Bien sur; voici le sparadrap"*

Anekdotak horiek beste hura ere ekarri didate gogora, orain zenbait urte jazotakoa, Forondako aireportua egiten ari zela, hain zuzen ere. Irakurleak oroituko duen bezala, nahikoa eztabaida izan zen garai hartan, aireportu hitza euskaraz nola esan behar zen argitzeko (?). Komunikabideek era guztietako proposamenak egiten zizkiguten: "egazkinzelai", "egazkinlur", ... eta abar luzea.

Egun haietako batean, baserritar adiskide batekin Forondako inguruetatik zehar, paseatzen ari nintzela, hango obrak zirela eta lagun horrek bere bizitza guztian erabilitako hitza aurpegiratu zidan, batere lotsarik gabe eta neologismoetatik urrun: *kanpodabiaziniue*.

Josemari Velez de Mendizabal

UGARAN
jatetxea

Garagarza auzoa - t/797658 Arrasate

enpresa
bazkariak
eta famili bilerak



gili gili

Iturriotz, 9 Tfnoa: 799457

**GIROA
AROTZAK**

Iturrioz 14, ARRASATE

HIRE

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

**Eléctrica
ZUBIETA**

Zubieta 50,
Tfnoa: 76 16 79
BERGARA

**E D E L
TAPIZTEGIA**

Gortina
Alfonbra
Koltza

Bidakruzeta 14, Tfnoa: 76 16 25
BERGARA

LARRINGAN

auto gidarien eskola

**KLASE TEORIKOA
IRAKASLEAREKIN**

Garbal 3, 79 22 96 ARRASATE

Presoen familiarrekin elkartasuna

Familia hauen alde dendaz denda egin den laguntza-eskea egiten aritu garenok gaituzue; eta guk ere, bidezkoa denez, sortu den honen aurrean geure ikuspegia eman nahi genuke.

Sektore honen egoera larria gero eta estuagoa dela ikusiz, eta beronekin solidarizatu beharraz konbentziturik, egoera hori zertxobait arintzen laguntzea izan da gure asmoa. Izan ere, gure herriko talderik erasotuena eta minduena hauxe dela uste dugu eta.

Gure jokaera, beraz, alderdikeria guztien gaintekoa eta interes ezkuririk gabekoa izan da. Aldi berean, fetxa hauetan ohi denez, gizabide hutsezko arrazoiek bultzatua.

Behar hori ikusita, pozik bete dugu geure eginkizuna, baina ez kosta gabe, edonork konpreni bait dezake zein gogor eta astuna gertatzen den atez-ate eskean joatea. Ez gara inor beldurtzeko eta presionatzeko moduan ibili, salatu diguten bezala, eskatzen zen laguntza guztiz borondatezkoa bait zen.

Beste urte batzuetan ere, honelatsu jokatu dugu eta ez da inolako istilurik sortu, eta badakigu beste erakunde batzuek ere antzera jokatzen dutela.

Herriko zinegotzi batzuek, ordea, pertsonarik serioenak eta herritarrontzako eredu izan behar luketenez, gure ekintza horretan ere akats edo erruaren antzeko zerbait aurkitu nahi izan dute, hau neurrigabe puztu dutelarik beren arau eta bideetan sartzen ez diren horiek baztertu eta laguntza gabe uzteko.

Hain erasotuak eta azpiratuak dauden presoen familiarren aldeko gure ekintzak, zer ote du gaitzesgarri?

Benetan penagarria eta lotsagarria aipaturiko zinegotzien jokaera, ez bait diegu ez gizatasunik, ez zintzotasun eta leialtasunik ikusi; izan ere, joku maltzurra egin dute asmo onez egindakoa zikintzen, eta zalantzarik egonez gero, beti bait zeuden bide hobeak horiek argitzeko.

Bestalde, komunikabideek laguntza ezin hobea eman diete hutsa-

ren gainean egin duten puztuketa horretarako; ikusiko dugu nahaste horien ondoren emandako argibideak zabaltasun eta ugaritasun berdinez aieratzen dituzten.

Bide batez, beren laguntza eman duten dendari eta establezimenduei eskerrak eman nahi dizkiegu izandako eskuzabaltasunagatik eta guk horretarako izan ditugun arrazoiak ongi ulertuko dituztela espero dugu.

Arrasateko preso eta errefuxiatuen senideei laguntzeko taldea

Zorionak

Arrasate Press aleak oso pozik eskuratzen ditut, ondoren ekinaldi batean irakurtzeko oso osorik, nere onurarako. Lan txalogarria egiten duzuen euskararen eta gure herriaren alde. Zorionak eta eskerrak astero aleak bidaltzeagatik.

Urte zahar hau ondo amaitu eta Urte Berri 90 on-ona, opa dizuet bihotz bihotzez

Kruz Abarrategi

Besaide mendi elkartearen exenplu ona

Lerro hauek idaztean jaso berri dut buzoitik Besaideren urteko Ohizko Batzar Orokorrera joateko deialdia. Eta bai ustegabeko atsegina! Sei foliotan ingormazio ugari eta guzti-guztia euskaraz. Galdetu ere egin diot neure buruari: noizdanik Besaiden halakorik?

Aire berriak somatzen dira Besaide Elkartearen eta poztekoa da benetan. Jarrai ezazue horrela, Arrasateko beste Kirol Elkarte guztientzat eredu izateaz gain, nik eta beste euskaldun askok eskertu egingo dizuegu eta.

GPA

Irakurle maitea:

Gabon garaian jo eta ke aritu ondoren, astebeteko atsedena hartuko dugu, eta zenbait aldaketa egiteko aprobetxatuko. Urtarrilaren 19a arte, ondo izan!

Zein balorazio egiten diozu 80. hamarkadari?



Joakin Artola
(jubilatua)

Niretzat oso urte onak izan dira, hamar urteak jubilatuta egin ditut. Osasun ona eta diru faltarik ez dut izan...




Rosi Tobalina
(etxekoandrea)

Nahastu samarrak izan dira. Bake apurren bat gehiago izatea atsegin izango nuke.



Remedios Bengoa
(langilea)

Orokorrean hobetuz goazela uste dut, baina...



Juan Bautista Bolinaga
(langilea)


Zenbait alorretan hobetuz goazela uste dut, jendeak lana aurkitu du, diruz ere hobetoxeago gabiltza... Edonola ere, oraindik bidegabeke-ria ugari dago.

L E N I Z

AUTO ESKOLA

ARRASATE-Aldai, 9-Tel. 79.46.04

ESKORIATZA-Arana, 13-Tel. 79.36.59



Eslu

ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
Arrasate

**Monte
taberna**

Maalako errabala 11, Tfnoa: 79 20 56

Jesus Giraldo

LISERI-APARATUA

X Izpiak, endoskopia

(Lagun Aro, Gipuzkoako Foru Aldundia, Prevlasa, Adeslas
(Muface) eta partikularrak
Kontsultak arratsaldeetan

Loramendi 6, 2. B (Eguzki dorrea) Tfnoa: 79 04 14 Arrasate

Memesa

79 42 22

“Aurten bere sorterriak Jokin Zaitegi egin dion omenaldia parada ona izan da, euskaldun hainitzentzat, oroitzeko bere bizian konplimendu guti izan duen apez horretaz: Gerla aintzinean Hego Ameriketara joana baitzen, han sortu zuen berak, *Eusko-Gogoa* izeneko euskal aldizkaria, gero, 1956an, Baionara berekin ekarri zuena. Baionako apezpikutegira agertu zelarik orduan, lehen aldikotz, hemen nehork ezagutzen ez genuen apez hori, gogoan dut ongi nola, harekin eleketa mila gai euskaraz- eta zer euskaraz!- aipatu ondoan erran zidan Nabaitz kalonjeak: “Ikusi duzu ‘mistro’ hori?” Eta zinez egia zen “harrigarria” baitzen gizon horrek edozein gauza euskaraz menderatzeko zuen patxadazko erraztasuna. Funtsean jakin genuen laster Platon eta Sofokel-en obra nagusiak itzuliak zituela Grekotik euskarara”.

(“Herria” aldizkarian)

“Euskararen erabilpenari dagokionean, herri bakoitzak bere berezitasuna du. Esate baterako, Arrasateko udal-plenoetan politikoak euskaraz nahiz gazteleraz mintzatzen dira, itzulpen sistimarik erabili gabe. Aktan ere, bakoitzak erabilitako hizkuntzan agertzen da, inolako itzulpenik gabe”

(J. F. Garitaonaindia kazetariak “El Correo Español” egunkarian)

“Sebero Altube beka bezalako ekimenak beharrezkoak dira, baldin eta gure euskera ondo ezagutu nahi badugu. Alde horretatik oso ondo iruditzen zait Arrasateko euskera hobeto ezagutzeko egin nahi den lana, eta gainera zera hartu behar da kontutan, lan hori orain egin beharra dagoela, jende nagusiak hemen dirauen artean (gazteek euskara kutsatua bait dute gaurko batuarekin, eta nagusiek, ordea, ez)”.

(Aita Luis Villasante Euskaltzainak Arrasatean)

Zein da IMI zentroen funtzioa? Betetzen al dute funtzio hori?

IMI zentruak, jendeak informatika edo informatikarekin lotura duten arloak, autodidakta eran ikas ditzan jarritako guneak dira. Honez gain, IMIk zenbait ikastaro ere antolatzen ditu bere zerbitzuen luzapen gisa. Ikastaro hauek urte guztirako Bilboko IMI nagusiak lurralde autonomo osorako eratzen duen plangintzaren arabera antolatzen dira. Plangintza honetan aurrikusten diren ikastaroez gain, beste zenbait antola daitezke, jendeak nahi edo eskatuz gero.

Nire ustez, Arrasateko IMIk betetzen du bere funtzioa. Edonola ere, zerbait argitu beharra dago. IMIra askotan langabezian edo zer eginik ez duen jendea etorri ohi da. Jende hori aste bitan aspertu egin ohi da. IMIn gauza asko ikas daiteke eta beraz, hona hurbiltzen direnak zer egin edo nondik nora jo nahi duten jakin behar dute. Delineante batek esaterako, ordenadore bidezko diseinua ikasiko du, edota idazkari batek testu prozesua, etab.

IMIn zenbait monitore ere badaude zentrua zaindu, mantenu lanak egin eta bertara etortzen direnei laguntzeko. Ulertzekoa da monitoreek ezin dituztela IMIn dauden programa guztiak menperatu, gutxi batzuk menperatu eta sor daitezkeen arazo nagusienak konpon ditzake, baina besterik ez. Inork ez ditu programa guztiak menperatzen.

*Juan Luis Ordorika
Arrasateko IMIko monitore*



AUSTIN ROVER




AUTO SAN ANDRES



IBILGAILU-MOTA GUZTIETAKO KONPONKETA ELEKTRIKOA

Araba Etorbidea 5, Tfnoa: 79 95 22 ARRASATE

Aldean eraman alde guztietara



• Gipuzkoako Kutxako Txartela aldean eraman egunera egoteko.

Diru-arazorik ez izateko.

Kutxako zerbitzu guztiak eskura izateko modu automatikoan.

Ordu-arazorik gabe.

Edozein dendatan ordaintzeko modua izateko, dirua aldean eramaten ibili gabe. Eroso-eroso.

GK Txartela duzu praktikoena.

Oraindik gabe bazaude, eskuratu azkar.

Gipuzkoako Kutxako GK Txartela aldean eraman alde guztietara.

Zure zerbitzura dauden Kutxazain Automatikoak:

- Garibaiko Sukurtsala
 - Zigarrolako Sukurtsala
 - Munareko Sukurtsala
-

GK:


GIPUZKOAKO KUTXA
CAJA DE GUIPUZCOA



Salterain

Ezagutu itzazu P.V.C. ren bitartez gaur egun eskura daukazun leiho miresgarriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik ...

Gral. Garro, 2 eta Uribarri Etorbidea, 20.
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 99 58



P. C. V.zko LEIHOGINTZA

20.500 ARRASATE

PROMOCIONES MARKULETE, S. A.

NABE INDUSTRIALEN SALMENTA

Mendi-Etxebarrin

445 m² tik aurrera sarbide zabalarekin

*Plantartekoa eta zubi-garaia, aukeran.

*Xafla bikoitz eta isolamenduzko estalkia

*Zerbitzuak: Saneamendua, telefonia, energia elektrikoa eta edateko ura.

Informazioa eta salmenta: Tfnoak: Gasteiz 28 67 60

27 79 60

Arrasate 79 97 95

prentsaren begia

OSTIRALA 29

CORREO: "Arrasateko udal bulegoak hartzen dituen edificioak behin behinekoz anbulategia har lezake"

DEIA: "Merkatariei egindako diru-exigentziei salaketa"

DV: "Gaur Pleno Berezia, merkatariei egindako eskudiruzko erreklamazioak salatzeako mozioarekin"

EGIN: "Presoen familiakoek gizatiarra ez den egoera salatu"

LARUNBATA 30

CORREO: "Arrasateko plenoak erabaki gabe utzi Iturripe eta Ferixalekuko proiektuen obrak adjudikatzeko lehiaketak"

DEIA: "Kirolari eskainitako jardunaldia"

DV: "Ferixalekuko pilotaleku eta Iturripeko kiroldegia obren deialdiak 'aldi baterako etenak' geratu"

EGIN: "'Kooperatiba taldea' Ulgorren lortutako emaitzekin pozik"

IGANDEA 31

CORREO: "Ordu t'erdiko espektazioa, telebistako kamarak eta une ezatabaidatsua azkenengo plenoan"

DV: "Herenegungo Pleno Berezian aurkeztutako zenbait mozio politiko"

EGIN: "Iturripe eta Ferixalekuko obrak adjudikatzeko lehiaketa erabaki gabe"

ASTEARTEA 2

CORREO: "Gaurtik aurrera eta urtarrilaren 5arte 'haur' guztiek izango dute Arrasateko Gabonetako Haur-Parkean jolasteko aukera"

EGIN: "'Bloke demokratikoaren mozioa onartu"

ASTEAZKENA 3

CORREO: "Merkataritza minoristaren gehikuntza eta zahar-berritzea Arrasateko sektorearen bilakaeraren ezaugarriak"

DEIA: "Gabon Zahar Eguna gertaera aipagarrik gabe ospatu"

DV: "Musika giroa behar Mondrak 2-0 Zallari irabazteko"

EGIN: "SUDC Batzordeak iaz antolatutako ekintzei buruzko emaitzan balantzea egin"

OSTEGUNA 4

CORREO: "Arrasateko Udala prestatzen ari ekainerako birmoldatutako udaletxe zaharrerako itzulera"

DEIA: "Arizmendiarieta Eskola Politeknikoarentzako aurrerapen gehiago"

DV: "Gaur 'kanibalaren eguna' kiroldegian dagoen Gabonetako Haur Parkean"

EGIN: "Bihar Gabonetako Haur Parkearen azken egunean zozketa berezia egingo"

Usteak uste...

Atzean utzi dugu dagoeneko bukaeran hainbeste ezusteko eman digun hamarkada, mende honetako zortzigarrena.

Bestetan bezala, gure artean ere eztabaida present izan da, preso en aldeko lagunek egindako diru eskara dela bide. Zenbait merkatarikexatu omen da, Ajuria Eneako hitzarmena sinatu zuten alderdiek salatu eta Estatu mailako komunikabideek sekulako ohiartzuna eman. Azkenean pleno berezia bi proposamen onartzeko.

Bakoitzak ahal izan zituen baliabiderik onenak eraman zituen. Komunikabide elektronikoak batzuk eta jendea besteek. Ia denetatik esan zen, apenas istilurik sortu barik, horretarako alkateak behin eta berriro bere agintea erabili behar izan bazuen ere.

Ona da jendea plenoetara joatea, ez bakarrik horrelako gaiak tratatzen direnean, bestela ere baizik. Zoritxarrez, horrelakorik apenas gertatzen da, eta aukera ederra galtzen dugu gizabidez eztabaidatzen ikasteko. Txalogarria alde horretatik alkatearen ahaleginak eztabaida bideratzeko.

Kontutan hartzeko, baita, zinegotzi sozialista baten puntualizazioa aretoko zenbait jende herria eurak zirela esanez, herriaren nahiaren kontra eman zutela botoa aurpegiratu zieten. Oraingo sistemaren arabera, herria mahaian zegoen ordezkatura eta hango zinegotziei zegokien erabakia hartzea, horretarako izan bait ziren aukeratuak. Onerako nahiz txarrerako, sistema honen arabera zinegotziak dira herriaren ordezkariak, hauteskunde demokratikoek ematen dieten legitimitate guztiarekin.

Joxe Aranzabal



Zurgin Kantoi, 2

Tfnoa: 79 20 04

ARRASATE

BRANKA jatetxea

Eguneko menua eta karta

Urtarrileko kultur programazioa

Zinea, Antzerkia eta musika ekitaldia

Udalak onartu berri du urtarrileko kultur programazioa. Horrela, besteak beste, honako ekitaldi eta emanaldi hauek izango ditugu ikusgai hilabete honetan zehar:

Urtarrilak 11, osteguna, Alan Rudolphek zuzendutako *"Inquietudes"* filmea, Amaia antzokian, 8,30etan.

Hurrengo ostegunean, urtarrilak 18, 8,30etan ere eta Amaia antzokian, *"Mi vida como un perro"*, Lasse Hallstrom zuzendaria pelikula.

Zinearekin amaitzeko, hilaren 25ean, osteguna, David Lynchen *"Terciopelo azul"*. Amaia antzokian, 8,30etan.

Antzerkiaren munduan, bi emanaldi prestatu dituzte. Urtarrilaren 20an, larunbatez, Tanttaka taldeak Pergolesiren *"Flaminio"* obra antzestuko du, Amaia antzokian, 10,30etan. Bestalde, urtarrilaren 27an, larunbata, umeentzako antzerkia izango dugu ikusgai, arratsaldeko 6,30etan. Jake Mate taldearen eskutik, *"Burburu"* obra.

Musikari dagokionez, urtarrilaren 12an, ostirala, *"Oyster Band"* Folk taldearen emanaldia, gaueko 10,30etan.

Ikusten duzuen bezala, badago aukera gustu ezberdinak asetzeko: zine emanaldiak, antzerkia eta nazioarteko musika Arrasaterako.



Oyster band, folk taldea Amaia antzokian



Udaletxerako oleoak

Udaletxe berriztua politto jartzekotan edo, hiru mural egiteko eskaria luzatu zioten Julio Galartari. 72 urteko artista honek eskaria onartu, eta dagoeneko obrak prestatzen dihardu. Hiru oleoen motiboak, honako hauek: Udala (3 m X 1m), Lenitz lautada Gatzagatik ikusita (2 m X 1 m), eta Udalaitz mendia (1 m X 1 m).

CE

ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak**

Olarte kalea 47, behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

ITSASKI

**arrandegia
arrain freskoa
eta jaki izoztuak**


Urbe Auzoa
Arrasata. 79 98 94




GATZAGA
Jatetxea

Arrasateko jatetxea

Olarte kantoia 3,
Tfnoa: 79 84 53



Fotokopiak
Enkuadernazioak
Planoen erreproduzioa
Ofieta
Ferrerías 23,
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62



Urontziko rocka

Epeleko urontzia rock taldeen entsaialeku bihurtuko

O

rain hilabete batzuk Gazteria Batzordeak, Arrasateko rock taldeek aspaldidanik duten beharraren aurrean, eskaria luzatu zion Arrasateko

Udalari gune bat eman zezan talde horiek entseiu tokia lortzeko. Udalak eskaria onartu, eta Epeleko urontziaren aldamenean dagoen depuradora zaharra egokitzea pentsatu zuten. Horrela, orain gutxi erabaki

zuten bertan egin beharreko lanak nori adjudikatuko zaizkion: "Electricidad Aranzabal" Koop. Elkartea arduratuko da instalaketa elektrikoaz (horretarako 358.324 pta emango zaizkio), eta bestalde "Pazi-ola" S.A.k burnigintza metalikoak eta zatikapen lanak egingo ditu (333.096 pta.. jasoko ditu Udaletik).

Bi enpresa hauek lana amaitzen dutenean, enplegu sustapenerako arduradunak erabakiko du nortzuk

pintatutako duten depositu berriztua. Kontuak kontu, urtarilaren azkenerako prestatu nahiko lukete dena. Gogoratu, bestalde, makina bat rock talde daudela Arrasaten, eta ondorioz berri garrantzitsua dela hau beraientzat. Besteak beste, *Ultimos Recursos*, *DDDP*, *Malaña*, *ODC*, *Zakarrak*, *SS-77*, etab. izan daitezke neurri hau aprobetxatu dezaketenak etorkizunean ●

ARRASATEKO UDALA

**HARATUSTEAK 1990 KARTEL
LEHIAKETARAKO DEIALDEA**

Udaltxe honetako Kultura Departamentuan deialdi hau arautzen duten **OINARRIAK** interesatu guztien esku aurkitzen dira

KIROLDEGI JATETXEA

EGUNEKO MENUA
ETA KARTA



**BELUN
taberna**

Lagunarte bikaina

Garagarza auzoa z/g Tfnoa: 79 61 14



Haurrentzako Gabon parkea

Urtarrilaren 1etik 5era, milioi t'erdiko aurrekontuaz

Pasa den asteartean hasi eta ostialerarte, haurrentzako Gabon parkea izan dugu Musakolako kiroldegian. Antolaketa Euskara eta Gazteria Batzordeen kontu izan dugu, Aukearen laguntzaz.

Ordutegia, goizean hamaiketatik ordubietara, eta arratsaldean lauretatik zortzietara. Horrela, 100 pta. ordaindu behar ziren sartzeko, eta behin barruan, honako aktibitate hauek dastatzeko aukera izan dute txikienek: ohe elastikoak, zezen mekanikoa, gaztelu puzgarriak, au-

rreknologi eta eskulan aktibitateak, mahai-jolasak, rokodromoa, arkuak, txotxongiloak, berbenak, pailasoak, maguak, etab. luzea.

Hainbat kirol ere sartu dituzte egitarauaren barne; horrela, neska-mutikoen saskibaloia, eskubaloia, etab. jokatu ahal izan dituzte.

Opari polita gure haurrentzako, egun hauetan gozatu dutena. Guztia martxan jartzeko, milioi t'erdiko aurrekontua onartu behar izan zuen Udalak, baina eskertu ere eskertuko zuen batek baino gehiagok.

Errege kabalgata

Ostiralean, abenduak 5, arratsaldeko zazpiretan aterako da aurtengo Errege kabalgata. Iturbide egoitzan opariak eman eta gero, bertatik ekingo diote herrian zehar emango duten itzuliari: Kontzezinotik San Andre-sera, Foru plaza, Udala plaza, Zaru-galde, Otalora, Maala, Biteri-Garibai, Portaloia, San Frantzisko eta Otalora, itzulia Monterron jauregian bukatuko delarik. Gogoratu, gainera, Monterronen "jaiotza bizia" egongo dela (hiru hilabeteko haurrekin).

Kabalgata, Arrasateko parrokia ezberdinetako gazteek antolatu dute. Asteartean eta ostegunean egin ziztuzten entseiuak, beraien paperak ahalik eta hobetoen antzesteko.

Pintura erakusketa

Urtarrilean zehar, Oñatiko Etxe-Aundin Arantxa Bascaran margolari arrasatearraren lanak izango ditugu ikusgai.

Jaiotzak

Urizar Alonso **Jokin**,
abenduaren 15an

Mollano Portalo **Julian**, 18an
Uribetxebarria Ateka **Jokin**, 27an
Alvarez Vaquero **Raquel**, 29an

Ezkontzak

Eloi Irazabal Bolinaga & M^a Mercedes Pilar Sainz Osinaga

LASAGABASTER

Jantzidenda

*Bertan izango duzu beti modako
jantzirik onenen aukera zabalena*

Garibal 9, Tfnoa: 79 89 97


Diru-eskarien aurkako mozioa

Pleno zaratatsua, non Udalak eskariak salatu zituen

Pasa den ostiralean egin zen Udaleko pleno berezia, non bloke demokratikoa osatzen duten alderdi politikoei (PNV, EA, PSOE eta EE) mozioa aurkeztu nahi zuten, preso eta errefuxiatuen senideei laguntzeko taldeak dendariei luzatutako diru-eskariak salatuz.

Hasieratik esan behar interes handia sortu zuela pleno bereziak, bai herritarren eta bai komunikabideen artean. Horrela, ehun bat lagun hurbildu ziren bertara (zinegotzietatik aparte), eta baita ETB, TV3 (kataluniakoa), ATB, SER eta Euskadi irratia, eta prentsa idatziaren hainbat ordezkarik ere.

Kontua da Xabier Zubizarretak lan handia izan zuela interbentzioak nolabaiteko ordenaz bideratzeko. Hasiera batean HBk hartu zuen hitza beste alderdien jarrera kritikatu. Gero publikoak (eta batzuk hitz gogorak erabiliz gainera). Hizketan izan genituen baita Pedro Mari Ruiz de Azua (EAREN joera azalduz), Xabier Lasaga (PNVren ordezkarria), Aitor Orobengoa (EEkoa) eta Jose Luis Lana (PSOeko ordezkarria). Eztabaida luzea, ia orubete eman bait zuten bozketa egin aurretik.



Plenoak, interes biziak sortu zuten

Azkenean, honako mozio hau onartzea erabaki zuten (13 botu alde, eta HBko lau aurka): merkatarikak sufritzen ari diren presioen aurrean ezezkorik haundiena adieraztea, bai laguntza eta elkartasuna adieraztea ere, eta beldurrez laguntzera beharturik izan ez daitezkeen deia zabaltzea. Era berean, Udala presioa eta beldurra instituzionalizatzearen aurka agertzen dela.

Beste hiru mozio

Mozio bateratuaz gain, beste hiru

ere aurkeztu ziren pleno berezian.

Bata PNV, EA eta EE taldeen eskutik (eta onartua izan zena ere). Bestea PSOEn kontura, Villosladaren askatasuna eskatuz (atzera bota zena, alde PSOE bakarrik bait zegoen). Eta azkenik, herriko hainbat erakundek aurkeztu zutena (Mondrak, Aita Frantziskotarrek, Eskubaloi taldeak, etab), presoen familiei laguntza humanitarioa ematearen alde. Hau ere atzera bota zuten, HB bakarrik jarri bait zen alde.

INTERSPORT®



zure
neurriko skya

SPORT-I
F-471 ROSSIGNOL skya.
447 SALOMON uskailuak.
TECNO-pro Star makilak

19.900,-

etirel

Emakumeentzako mono
akoltzatua tactel ehuna.

18.500,-


LK
2000

LORAMENDI

KIROLAK


Osorik
pub

Ignazio Zuloaga kalea, Arrasate



ECUADOR

Kontzeslño 2,
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE



Irakaskuntz-ihardunaldiak

Hezibidek antolatu, erreformaren erizpideak argitzeko

Hile honetako 11 eta 12an, ostegun eta ostiralez, "Hezkuntz sistema berriari buruzko ihardunaldiak" izenarekin, lan-mintegi, batzar, eztabaida eta hitzaldi sorta interesgarria eratu du Hezibidek, Erreformaren inguruko mundua argitu nahian.

Bertan Hezibide barruan dauden ikastetxe guztiek hartuko dute parte, eta baita erreforma bereganatu duten bailarako zentru guztiek ere. Ihardunaldiok zuzentzeko Elena Martin anderea etorriko da, Madrilgo Ministeritzako Berriztapen Pedagogikoko zuzendaria hain zuzen ere.

Ostegun goizez Ikasbiden lan-

mintegia egingo dute zentru guztietako departamentu buruek, Hezibideko talde teknikoarekin batera. Arratsaldeko 3etan hitzaldia Almenen, "Lehen mailako irakaskuntza" gaia jorratuz. 6,30etan, Amaia zinematokian gurasoentzako hitzaldia. Gaia "Hezkuntza sistemaren aldakuntza non datza" izango delarik.

Ostiralean goizez lan mintegia Ikasbiden, bezperakoari jarraia emateko, eta arratsaldeko 3etan, irakasle guztiei zuzendutako hitzaldia, Almeneko areto nagusian. Bertan, "Bigarren mailako irakas-kuntza"ri buruz arituko dira.

Tu-Lankide

Tu-Lankidek azaroan ateratako 330. zenbakian, berrikuntzak dira nagusi. Aire berriak heldu direla dirudi.

Batetik itxura aldaketa aipatu behar. Hori diseinuan nabari da, maketazioa aldatu egin dutelarik. Kolorea sarriago erabiltzen da, eta argazkiei garrantzi handiagoa emanez.

Bestetik, gogoratu ere Tu-Lankidek zuzendari berria izendatu duela orain gutxi. Javier Marcos, hogeitabost urteko atxalaltarra aukeratu dute lan horretarako. Hemendik, bere lana ahalik eta hobetoen bete dezala opa diogu!



FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



Ikastaroak Famili Heziketarako Zentruan

Matrikula epea urtarrilaren 8tik aurrera

Arrasateko Famili heziketarako zentruak aditzera eman du hurrengo trimestrerako prestatu duen ikastaro-egitaraua. 15,30tik 18,30etarainoko ordutegian, honako ekitaldi hauek aurkitu ahal izango ditugu: astlehenean puntu eta gantxiloa, asteazkenean psikologia, ostegunetan mozte eta konfekzioa, eta ostiralean, ostargintza, sukaldaritza eta gozogintza.

Gaueko ordutegian, ostera, 18,30tik 9etara, beste ikastaro hauek: astlehen eta asteazkenetan, alde batetik sukaldaritza eta gozogintza, eta bestetik euskara ikastaroa. Asteartetan, pintura eta margoketa, eta ostegunetan, berriz, eskulanak.

Berrikuntza moduan, martxoan gazteentzako ikastaroak antolatu nahiko lituzkete, 1.000 pta.ko matrikula ordainduz. 18,30tik 20,30etaraingo ordutegian (eta Udaleko Gazte zerbitzuaren laguntzaz), honako aktibitate hauek prestatuko dira gazteentzako: astlehenetan psikologia, asteazkenetan keramika eta bustingintza, eta ostegunetan sukaldaritza eta gozogintza.



Santa Teresako egoitza

Matrikulatzeko epea urtarrilaren 8an zabalduko da. Horretarako, Santa Teresa kalea, 12-behera jo beharko duzue izena ematera, arratsaldetan, 15,30etatik 20,30etara.


Bukatzeko, gogoratu osasun eta segurtasunari buruzko ikastaroa astearte guztietan izango dela, oraindik ere erabaki gabe dagoen ordutegiakin. Informazio gehiago izan bezain laster berri emango dizuegu.

Istilua Ostarkun

Gabonzaharra ospatzeko, urtero bezala kotiloia antolatu zuten aurten ere Ostarku dantzalekuan. Goizaldeko laurak inguruan, Jose Maria O. U. (37 urtetakoa) heldu zen Ostarkura, eta atezainekin eztabaidan hasi sarrera ordaindu gabe pasatu nahi zuelako. Atezainek, noski, ukatu egin zioten halakorik.

Handik minutu gutxira, hara non itzuli zen gure astokiloa, aizkora eta guzti. Gatazka gogorra eratu zuten, eztabaida latza. Ondorioz, Ostarkuko atezainak hortz bat galdu zuen; Jose Maria O.U.ri, berriz, hainbat hezur hautsi zizkioten kolpeka.

Azkenean, Ertzaintzak atxilotu egin zuen aizkoradun astokiloa. 1990ari horrela ekitea ere!



INDUSTRIA ETA AUTOMOZIOTAKO LABAINGARRIAK BERE INSTALAZIO BERRIETAN

Kataideko Industrialdea 1 eta 2
Musakola z/g 51 postakutxa. Tfnoa: 79 46 33 / 78 Faxa: 798411 ARRASATE

Otalora 2, ARRASATE

LOREA
Oinetakoak
eta poltsak
Paz 9, Tfnoa: 25 66 32
GASTEIZ

Txandaka

Herrerarako martxa

225 arrasatear inguru irten ziren pasa den ostiralean, aurtengo Herrerarako martxan parte hartzeko. Lau autobus bete zituzten herritarrek, eta inguruetako guztiak ere hemen elkartu zirenez gero, guztira hamazazpi izan ziren espetxerantz elkarrekin irten ziren autobusak.

Marrazketa ikastaroa

Arrasateko Udaleko Kultura Batzordeak, marrazketa eta margo ikastaroak antolatu ditu. Ikastaro hauek larunbat goizetan emango dira, Monterroneko jauregian. Dena den, gai honetan interesatuak zaude ten guztioi, hilaren 13an, eguerdiko 12etan egingo den batzarrerako gonbidapena luzatzen zaizue.

Udaletxea Ekainerako

Badirudi Ekainerako prest egongo dela plazako Udaletxe berritua. 1988ko udan hasi zituzten lanak; beraz, bi urteko epea behar izan dute obrak bukatzeko. Gai honekin lotuta, esan dezagun Udalak ohar hau kaleratu duela: Udaletxe eta honen ondoko edifikazioaren ekipamendurako altzariak erosi eta instalatzeko deitutako lehiaketan, proposamenak aurkezteko epea 1990eko urtarrilaren hogeitahiruan amaituko da.

Aipatu, bukatzeko, altzariak erosi eta instalatzeko aurrekontua 22 milioitakoa dela.

ATBk Murugainetik igorriko

Astearteko Gobernu Batzordean, ATBri Murugaineko instalazioetatik igortzeko baimena eman zioten. Gauzak horrela, azken orduko konponketa eta egokitze lanak egiten ari dira, hemendik aste gutxitara programazioarekin ekiteko. Ea ba!

Irabazi dugu. Orain goan amore eman behar izan dute. Askotan egon gara lortzekotan, Estatutu en botazioan, RIC-en...etab.etan, baina orain lortu egin dugu, zuzendaritzak egutegia kendu egin behar izan du. Konstantziari saria izan da.

• Ulgorreko Zuzendaritza Batzordeak honelako egutegia proposatu zuen:

– Desplazatua: lanordu gehiago udan eta gutxiago neguan.

– Abuztuan opor txiki batzuk eta hilabetea betetzeko falta diren egunak urtean zehar hartu.

• Langilegoaren haserrea somatu eta KTKo asanbladak ez ohizko Batzar Orokorra joateko sinadura bilketa proposatzen du. Berehalakoa da bazkideen erantzuna. 800 sinadura baino gehiago biltzen dira eta estatutuaren legegari jarraituz, abenduaren 16an egiten da Asanblada Orokorra.

• Emaizak nahiko adierazgarriak dira. 200 botoen aldeagatik irabazten dugu (bai 926, ez 745, baliogabeak 19). Poz ikaragarria sentitzen dugu gehienok orduantxe. Istorikoen erretiroren ondoren kooperatiben goi zuzendari-tzan finkatzen ari diren teknokrata berriek, aldiz, kriston jipoia hartzen dute. 1990ean 8 ordu eta 15 minututakoa izango da egunbeteko lana, eta abuztu osoan oporrak.

• Oporrak abuztuan defendatzeko adierazten genituen arrazoiak hauek ziren.

– Oporrak guztiz osasungarriak direla eguneroko lanaren desgastea arintzeko. Abuztua da hilabeterik egokiena oporretarako, arrazoi askorengatik: eguraldia, eskolako oporrak, lagun

Irabazi dugu



Jose Angel Etxebarria *

edo familiarekin batera gozatu ahal izateko...

– Ezin genuen onartu kooperatibak bihurtzea beste enpresetako buruen ikusmira, gero hauek, merkatuaren gorabeheren arabera, langileei eurek nahi dituzten oporrak inposatzeko.

• Kokoteraino gaudelako gestio-planak kuadratzeko batikoak zanpatuz egiteaz, koiunturari errua botaz zenbakiak ezin direnean justifikatu.

Lorpen hau, txikia izanik inportantea da, eta ez dugu nahi konklusiorik gabe gelditzea:

1 Argi gelditu da posible dela irabaztea beldurra alde batera uzten dugunean. Txarto gaudenok geurea defendatzeko elkartzen bagara, emaitzak lortzen dira.

2 Kooperatibak holding tipiko eta topikoa bihurtu nahi dituzte, Kontseilu Sozialak ezezik Zuzendari Batzordeak ere Kontseilu Orokorrean (administrazio kontseiluaren) jostailu direlarik. Hasi berri diren aldaketa hauen egilea jerarkia teknokratiko berria da.

3 Kontseilu sozialei ematen zaien paper negargarria ez dator bat RICen (Reglamento Interno Cooperativo) onartutakoarekin. Negoziazioaz hitz egin ere ez da egiten. Inposatu egiten da. Organu hau guztiz deskafeinatua gelditzen ari da, askotan "langile aristokrazia" edo "yuppy berri"en trikimailuetarako besterik erabiltzen ez delarik.

Gerta daiteke Ulgorreko Zuzendaritza saiatzea denon artean lortu dugun egutegi berria lardatzen. Hemendik aurrera egutegi berria izan daiteke euri eskasiaren erruduna eta suteena?... Beraz, eme ibili...

(*) Kooperatibista taldeak (KT) Asanblada

Kabia

Altzariak

Gipuzkoako Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

BOLINTXO kirolak

Ibargarai 10, BERGARA



Itsaso Aiastui eta Victor Manjon arrasatearrak dira *Gorosti* jatetxe berriko sukaldariak. Gasteizen ikasitakoak biak. Azaroaren 9an zabaldu zuten jatetxea Arimazuri plazan. Bazkari eta afariak egunero, igandee-tan ezik.

izen propioak

■ **Javier Marcos**, 25, aretxabaletarra, izango da hemendik aurrera TU-Lankideko zuzendari berria. Javier-ek Jose Antonio Morak utzitako postua beteko du. Informazio Zientzietan lizentziatua da, publizitate adarrean eta orain arte Arrasateko AZK publizitate agentzian aritu izan da lanean.

Ramon Alvarez eta **Juan Mari S. Pedro**, "Pitote", ea nork tripa handiago aritu ziren Usurbilgo Saltxipi jatetxean bapo bazkaldu eta gero, halako moldez non *Juan Jose Baltzategi*, "Baltza", epailearen burua txikitzeko gutxi falta izan bait zitzairen. Hirurak *Txango* taldeko kideak, musakolarrak jakina.



imagan argazki

■ **Julio Galarta**, 72, Zizurkilen jaiotako arrasatearra, Arrasateko udalaren enkarguz hiru mural egingo ditu. Udala, Udalaitz eta Leintz bailara izango dira oleoen gaiak. Bartzelonako unibertsitatetik Arte Ederretan lizentziatua, Roneo enpresan aritu zen 44 urtez. Gasteizen eta Oñatin egin ditu azken erakusketak.

■ **Danel Miner**, 5 egun, 90. hamarkada berri honetan Arrasateko Eskualde-Ospitalean jaiotako lehen haurra dugu. Danel urtarrilaren 1eko goizaldeko 4,35etan jaio zen. Gurasoak Guillermo, 21, Labegarrietako langilea eta Ane Miren, 19, bergararrak.

■ **Jose Mari Astigarraga**, 51, Arrasateko parrokoa, elgoibartarra, zilarrezko ezteiak bete ditu apaizgintzan. Josemari 1964eko abuztuaren 2an egin zen apaiz Donostian. Arrasaten 5 urte daramatza. Herrira etorri aurretik, bi urte t'erdi Nuarben eman zituen eta hamazazpi pasatxo Errenterian.



EPPko kantinan 24 urtez lan egin ondoren, jubilatuta berri da **Pilar Barandiaran**. D. Jose Mariaren eskutik sartu zen eskolan. **Pili Nafarratek** ere 10 urte eman ditu lan berean. Aurrerantzean Eskolako jantokian egingo du lan. Biak ere makina bat ogibitarteko eta atentzio emandakoak EPPTik pasatutako guztioi. Denon partez, mila esker!




ARRASATE KRISTALDEGIA
Badakizu zer egiten dugun kristalarekin?
Hori eta gehiago

Nafarroa Etorbidea 25, etxabehea. Tfnoa: 79 71 98 ARRASATE

Liburu bat, lagun bat

Monterroneko liburutegira gero eta jende gehiago

Jadanik sartuak gara 90. hamarkadan eta ia bertan dugu hain sarri entzun dugun 2000. urtea. Gizona espaziora joaten den garai honetan, liburu bat hartu eta irakurtzea hainbatentzat gure arbasoek egin ohi zuten zerbeitetan bihur daiteke, bideo, telebista etab.en eraginez. Alde guztietatik jasotzen ditugu irakurketara bultzatzen gaituzten deiak eta nobela, poesia, liburu eta orokorrean edozein libururen promozio, gero eta gogorragoa da irakurleak erakarri nahian. Edonola ere, Monterron liburutegira joaten den jende kopuruaz baliatuz gero, erizpide gisa arrasatearren artean irakurketa maila hona dagoela esan daiteke



Itxura dotoreko liburutegia

Zenbait urtetan udal liburutegirik izan gabe egon ondoren, Monterron liburutegia ireki zen Arrasaten. Itxura dotorekoa berau, gela txiki eta handitan banatua, irakurketara gonbidatzen gaituen gune aproposik aurki genezake bertan. Hala ere, ezin esan leku gehiegirik dagoenik, guztira ehun pertsona baino gehiago ez bait da sartzen.

Monterroneko liburutegiak, lehengoak ez bezala, haur zein helduentzako liburutegiak ditu, bitan banatuak, oraingo liburutegietan banaketa hau normala den arren.

Ikasturtean zehar jotzen du bertara jende gehienak, udara aldean, kopurua nabarmen gutxitzen delarik. Liburuzainak adierazi digunez, udara aldean jendea, lanak egin

edota ikastera joaten omen da, baina beti ere kopuru askoz ere txikiagoan. Ulergarria udara aldeko jende jaitsiera, eguraldiak ere ez du eta, pareta artean sartuta egotera gonbidatzen.

Gaur egun Monterronek 3.000 bazkide ditu eta eguneko zenbait ordutan jendez gainezka ikusiko dugu

Gaur egun, 3.000 bazkide ditu liburutegiak, nahiko kopuru handia kontutan izanda herriak 28.000 biztanle dituela. Liburuzainaren hitzetan, gero eta jende gehiago hurbiltzen da bertara eta gehienak gazteak izan arren, jubilatua ere hurbiltzen hasi direla aipatzen digu, gehiegi ez izan arren.

Monterronera hurbildu eta beharbada liburuak eskura egoteak harritu egingo gaitu. Edozein modutan ere, liburutegi publikoetan liburuak horrela egon behar dutela adierazi digute. Nazioarteko araudien zein bertakoen erizpideak segituz liburuek ez dute gordeta egon behar, jendeak ez dezan inolako zailtasunik izan liburuak aukeratzeko orduan eta bide batez jendea irakurketara bultzatzeko. Liburuak horren eskura izateak harriskuak ere baditu, liburu ugari desagertzen bait da bertatik. Hala ere, arau-haustea edozein erakundetan sor daitekeen arazoa dela eta, liburutegiak ere harrisku hori bereganatzen duela adierazi digute.

Liburuak erosterakoan, gai orokorrean behintzat, aldizkari etab.etan agertzen diren erreseinez baliatzen dira bertakoak. Gai berezietuz berriz, alor bakoitzeko adituei bibliografia, etab. eskatuko zaizkie eta honez gain jendeak ere gustokoak dituen liburuak eskatu eta liburutegian ikusteko aukera du.

Arrasatearrek, Monterronera hurbiltzen direnak behintzat, atseginen nobelak dituzte. Antzerki apurrren bat ere irakurtzen dute eta poesia ia bat ere ez. Gusto banaketa hau orokorra dela esan daiteke, beste

liburutegietan ere antzerako eskaerak jasotzen bait dira. Hala ere, literaturaz gain biografiak, historia liburu, etab. ere irakurtzen dira.

Zenbait hutsune

Monterronek, hala ere, baditu zenbait hutsune. Liburuei dagokienez, gai aldetik orokorrak

diren liburuak aurkituko ditugu. Monterroneko liburuzainak adierazi digunez, hutsune hau udal liburutegi guztien arazoa omen da, herriak oso handiak ez izatean, gutxiengoa izango bait da liburu berezituak eskatuko dituen. eta aurrekontuak oso handiak ez direnez izaten, gehiengoari begiratzen zaio.

Monterronen liburu hautaketa egitean, beraz, orokortasunari begiratzen zaio eta ez arlo edo esparru zehatzetan jendeak izan ditzakeen beharrei.

Aurrekontuak ere, bere mugak ezartzen omen dizkio Monterroni, milioi bateko aurrekontuak ez bait du liburu gehiegi erosteko aukerarik ematen.

Edonola ere, arazorik larriena pertsonala dela aipatu digute. Libu-

rutegian lanean behin betiko kontratatzeko pertsona bakarra ari da. Honez gain, beste hiru-lau, aldi batetarako kontratadorekin. Bertako arduradunak adierazi digunez, hau da arazo gehien sortzen duen hutsunea, aldi baterako jendea izatean, lana ikasi eta lanean hasten direnerako, lana amaitzen bait zaie.

Pertsonal arazo hau dela eta, oraindik liburu ugari dago sailkatu barik.

Beste zenbait zerbitzu

Monterronen liburuez gain, hemerroteka ere badugu. Egunean bost egunkari jasotzen dira eta beste zenbait aldizkari. Bertan azaldu digutenez, ezin izan daiteke hemerroteka ganorazkoa, aldizkari, egunkariak, etab. artxibatze

jendea behar bait da. Beraz, aldizkariak jaso eta gero kendu egiten dira.

Iazko azken hilabetean, Jokin Zaitegi liburutegia ireki zen. Bertan idazle eta itzultzaile arrasatearren zenbait lan aurkitu ahal izango dugu. Liburu hauez gain, Monterronen idazlearen lan guztiak ditugu mikrofilmata. Hala ere, berauek ikusteko ekiporik ez dagoenez, lan hauez oraingoz behintzat ezin balia gaitzke.

Monterron liburutegiak bestalde, Eskoriatzako Irakasle Eskolarekin batera irakurketa bultzatzeko zenbait ekintza ere antolatu izan ditu. Horrela, iaz zenbait idazlerekin, haien lanez eta nahi izan zuten gai guztiez hitz egiteko aukera izan zuten haur arrasatearrek.



J oan den urtearen azken hilabeteetan, herrian egin zen liburu azokaren inaugurazio egunean,

Haur liburutegi berriak

Arrasaten bost liburutegi berri ireki behar zituztela jakin izan genuen. Liburutegi berri hauek irekitzeko arrazoi ugari egon daiteke, baina nagusia Monterroneko liburutegiak jasaten duen saturazioari aurre egitea da.

Arazo hau nolabait konpondu asmoz, udalak iaz, San Andres auzoko auzo-alkateak egindako proposamena bereganatu eta bost liburutegi berri irekitzea pentsatu zuen.

San Andres auzoan duela zenbait urte, auzo liburutegia egon zen. Edonola ere, kendu egin zen arrazoi desberdinak zirela medio, lokala hondatuta egoteagatik besteak beste. Iaz auzo-alkateak lokala konpondu eta berriz ere auzo-liburutegia ezartzea eskatu zion udalari eta honek ideia onartu.

Auzo liburutegiak, San Andres, Gara-

gartza, Musakola, Santa Marina eta Uribarri auzoetan ezarriko dira. Nahiz eta auzo liburutegi hauek joan den urte amaierarako martxan egotea espero zen, oraindik ez dira hasi.

Liburutegi berriak, haur eta gazteei zuzendua egongo dira nagusiki. Era honetan, auzoetako haurrek Monterroneraino hurbildu beharrik ez dute izango. Liburutegi hauek Monterronen liburutegiaren ardurapean egongo dira, Monterroneko arduraduna izango da, liburuen hautaketa eta besten lan guztien arduraduna.

Liburutegi hauen antolaketa iragaritzean, zinegotzi batek gaur egun Monterronen jendea eskaileretan ere aurki daitekela adierazi zuen. Ea hemendik aurrera horrelako egoerarik ez den sortzen.



URONDO elektrizitatea.

Nafarroako etorbidea, 11 Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

- * Elektroiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

UDALA

Auto-eskola

Minusbaliatuentzako
klase bereziak

Otalora, 25 Tfnoa: 79 88 56

HITZALDIA

Gaia: EUSKAL HERRIKO EKONOMIAREN BILAKAERA.
GAURKO EGOERA ETA DESOREKA NAGUSIAK

Hizlaria: GONTZAL BARASORDA. Lankide Aurrezkiko
Ekonomi Ikerketa sailaren arduraduna)

Eguna: Urtarrilaren 11n, osteguna, arratsaldeko 7etan.

Lekua: MONTERRONeko hitzaldi-aretoa.

Antolatzaile: AED elkarte.

ZATOZ ZU ERE!



eskulana ki

Irakaslea:

BEATRIZ ARREGI. Eskoriatzako Irakaslea

Eskulanak:

- **TARAZEA**
- **LORE KOADROAK**
- **PAPEREZKO PASTA**

Hasiera: **Urtarrilaren 16an**

Bukaera: **Apirilaren 10ean**

Noiz: **Asteartean 3etan**

Non: **AEDn**

Informazio gehiago: Bertan, edo **79 54 46** tfnoan.





Ehundaka aldiz errepikatu den eskena

Aretxabaletatik Olynpora

Baloiak geldituz jorratutako bidea

Aretxabaletako atezaina guztiok dugu ezagutzen. Almenen, UDAn eta Alavesen eman zituen lehen urratsak futbolaren munduan. Aspaldiko kontuak, eh Andoni? Javi Clementeren eskutik Athletikera heldu zenean inor gutxi sinisten zuen Zubizarreta hain urruti hel zitekeenik. Gaur egun, beldurrik gabe baiezia dezakegu munduko atezain onenetarikoa dugula.

Nola integratu zarete zu eta zure familia Bartzelonan, Bartzelonako bizimoduan?

— Hasieran ez zen samurra izan Euskal Herritik etorri eta Bartzelonako bizimoduari ekitea. Baina bue-

no, denborarekin jendea ezagutzen hasi, gehienbat ere taldearen inguruan mugitzen direnak, eta gaur egun lagun zirkulu majoa osatzen dugula esan dezaket. Emaztea eta mutikoa ere dagoeneko ohitu dira,

eta alde horretatik ez da inolako arazorik egon.


— Ildo berari eutsiz, azken urteotan euskaldun mordoa elkartu zarete ekipoa. Nabaritzen al dira harreman bereziak zuon artean edo tratu berdina duzue jokalaria guztiok?

— Harremanak oso onak dira guztion artean, baina noski, erlazio berezia somatzen da, Rekarte, Bakero, Txiki, Julio, etab.ekin. Hona heldu zirenean guregana jo zuten zuzer-

**ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA**

J. Carlos Guerra 1, Tfnoa: 79 91 64

BAZAR
TOKI ON



PEÑACOBA
Auto-Eskola

Zarugalde, 46
79 14 01

ARRASATE

Egunean biziz

Andoni Zubizarretak Aretxabaletako UDAn eman zituen lehen urratsak atezain postuan. 16 urte zituela Alaves taldeak fitxatu zuen, eta bertan gelditu bi denboraldi.

Clementeren eskutik egin zuen jauzia lehen mailara, 1981-82 denboraldian. Mutikotako ametsik handiena jada lortua!

Bost urte eman zituen Bilbon, eta garai hartan irabazi zituen bi liga eta lehen Errege kopa.


1986a urte garrantzitsua izan zen Aretxabaletakoarentzat; Mexikoko mundialetan izan genuen atezain titular, eta handik bueltan Bartzelona taldeak zortzi urterako kontratua luzatu zion, 1993-94 denboraldia arte.

Barçan hiru entrenatzaile ezagutu ditu: Terry Venables, Luis Aragones eta Johan Cruyff. Guztiekin titular izan da, eta bereaiekin irabazi ditu Errege kopa (Andonik irabazten duen bigarrena), eta baita Europako Errekopa ere.

Orain une onenatariko batean dago, eta bere hurrengo erronkak badu izenik: Italiako mundialak. Dena den, gaurkoan gaurkoa bizi du Andonik, eta denboraldia lesiorik gabe amaitzea litzateke bere lehen ametsa. Gero helduko dira gerokoak. Hemendik, atezain eta pertsona moduan daukan kategoria handia erakusten segi dezala espero dugu.

Zorte on, Andoni!

S.G.



Atezainaren bakardadea

nean, eta normala da gainera. Adin berekoak gara, toki beretik gatoz, eta ondorioz gauza gehienetan antzeko ideia eta gustuak izaten ditugu. Ondo pasatzen dugu elkarrekin, eta horregatik sarritan elkartzen gara.

— *Zuk, Andoni, bere momentuan barru barrutik ezagutu zenuen euskal futbola; nola ikusten duzu orain kanpotik, urrutian egonda?*

— Athletic eta Erreala bezalako taldeen ezaugarri nagusia, bai lehen eta bai orain, jokatzeko estiloa oso definitua dutela izango litzateke. Adibi-

"Bartzelonan, taldearen inguruan sortzen den presioa ikaragarria da; batez ere prentsaren presioa"

dez, aurten zarata handia egon da fitxaketak zirela eta ez zirela; baina jokalariai aldatu arren, beti antzeko jokoa erakusten dute, ona, trinkoa. Emaitza hobe edo txarragorekin, baina urtero goian.

— *Zer gertatzen da Bartzelonan, Andoni, urtero-urtero huts egiten diezuela sortutako aurrikuspenei?*

— Ez dakit, ze kalitatea sobran dago hemen. Agian taldearen inguruan sortzen den presioagatik izan daiteke. Batez ere prentsaren aldetik jasotzen dugun presioa ikaragarria da, eta hori beti nabari zaio taldeari, igandero-igandero. Horrek urduri jartzen ditu jokalariai asko, eta beharbada horregatik ez ditugu espektatibak behar bezala betetzen.

— *Orain dela gutxi, gogor salatu zenuen Atotxako zaletuen jokaera. Bero-beroan esandakoak izan ziren, edo benetan pentsatzen duzu gaizki hartzen zaituztela?*

— Begira, Madrilan, Zaragozan eta antzeko lekuetan beti hartu izan naute gaizki, baina ohitu egiten zara. Donostiara heldu, etxera, eta hango gaizki-esanak entzuteak, ordea, benetan mintzen nau. Ni ere azken finean Aretxabaletakoa naiz; eta nere lana Bartzelonan betetzen badut ere, ez dut ulertzen sektore horiek nire aurka duten erreakzioa. Agian nire arazoa da, aurkako taldean nagoela onartu beharko nuke, baina...

— *Italiako mundiala gainera datorrigu, eta badirudi zuk bertan parte hartuko duzula. Norainoko esperantzak jarri dituzu han?*

— Italiako mundiala izugarrizko erronka da guztiontzat, bai jokalariai bakoitzarentzat eta bai talde guztiontzat ere. Italianoak ezagututa, seguraski kriston montajea izango dela uste dut, komunikabide guztiak eta milioika pertsona han gertatzen denaren zain. Alde horretatik erronka handia da, imajinatu noraino igo daitekeen ondo aritzen den jokalariairen ospea... Talde bezala, guk

Gorka
ILEAPAINDEGI
MIXTOA

Bainetxe kalea 10, behea. Tfnoa: 79 96 80 eta 79 63 27
ARETXABALETA



PAPER PINTATUAK - PINTURAK

A. ZANGITU

Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE
Tfnoa: 76 19 54 BERGARA

konfidantzaz ikusten dugu mundiala. Azken finean zorteak zeresan handia izaten du halakoetan, zutoinean jo edo baloia sareetara sartzea-ri zortea; baina uste dut Suarez bide onetik dabilela, jende gazte eta kalitate onekoa bilatuz, eta ekipo polita eramango dugu ziur aski.

— *Dena den, Andoni, lehia handia ari zaizu sortzen atezain posturako: Otxotorena, Biurrun, Gonzalez bera... eta denak ere euskaldunak.*

— Bai, hala da. Zer esango dut nik orain Otxotorena eta Biurruni buruz... biak ere oso atezain onak dira, onenatarikoak. Gonzalezen kasua ezberdina da. Mutil gaztea, eta Arkonadaren mitoa ordezkatzeko papeleta...Nire ustez oso trebea da,

"Euskadiko selekzioa sortzea txikitatik dudan amets zoragarria da. Eta kontuz, ez litzateke talde makala izango"

partidu ederrak egiten hasia da. Zaletuek pazientziaz laguntzen badute, urrutira helduko da.

— *Cruyff-en Bartzelona, Toshack-en Madril, Clementeren Atleticoa...Hain garrantzitsuak al dira? Ez al dago dena asmatuegia futbolearen entrenatzaile horiek hainbestereinoko garrantzia izan dezaten?*

— Nik Toshack ez dut pertsonalki

ezagutzen, baina imajinatu bai nolakoa den. Agian entrenatzaile hauek taktikoki ez dute gauza handiegirik asmatzen, baina hiru horiek eta beste antzeko batzuk, nortasun izugarria ematen diote taldeari. Irabazlearen izakera transmititzen diote jokalariai, autokonfidantza, eta hori funtsezkoa da kirolarientzat.

— *Bukatzeke, Andoni, zer deritzozu Euskal selekzioa sortzearen amets zaharrari?*

— Amets zoragarria dela, nik neuk ere txikitatik izan dudan ametsa. Baina ez dakit, agian gaur egun arazo hori politikoen esku dago, ez guretan. Eta kontuz, Euskadiko selekzioa sortuz gero, ez litzateke talde makala izango ●



Andonik 28 urte ditu. 1961eko urriaren 23an jaioa. Kimika ikasketak hasi zituen Bilbon, baina futbolaren profesionaltasuna medio, bertan behera utzi behar izan zituen. Gaur egun, ekonomi ikasketak hasi ditu Bartzelonan. *Mens sana in corpore sano.*

Bilboko Garellano erregimentuan egin zuen soldadutza. Garai hartan, bere bizitzako ametsetariko

Kontu kontari

bat lortu zuen: Athleticera joan, eta atezaina zenez gero, Iribarrekin entrenatzea. Maixua eta ikaslea aurrez-aurre. Zarautzeko "Txopo" ak benetan asmatu zuen Andoni bere ondorengoa izan zitekeela esan zuenean, bai horixe!

Ane Miren Barrutia arrasatearrekin ezkondua dago Andoni Zubizarreta. Ane Mirenek ere 28 urte ditu, 1961eko azaroaren 11n jaioa. Almenen ezagutu ziren, Ane Miren Mondragoeko La Merced eskolatik hara joan zenean BBB ikastera. Bigarren, hirugarren mailan ekin zioten gaur egun sendotua dagoen harremanari. Orduko hamasei, hamazazpi urteak. 1985eko uztailaren 6an ezkondu ziren Arantzazun; ezti-bazkaria, Zumarragako Etxeberria jatetxean.

Ane Miren Barrutiak Bayonan hasi zituen medikuntza ikasketak. Urte bakarra, gero Palentzian ikasi zuen nekazal injinerutza, eta gaur egun horrekin zerikusia duen negozioan ari da lanean.

Bikoteak hiru urte t'erdiko semea dauka, Markel Zubizarreta Barrutia. Mondragoen jaioa, 1986ko abuztuaren 6an (nahiz eta Bartzelonan bizi, Arrasatera hurbildu ziren semea hemen jaio zedin). Mila gauza erakutsiko dizkiote Andonik eta Ane Mirenek semeari, eta ardura ere izan dute, Katalunian bizi arren, Markelek euskara ikas dezan. Horretarako emakume bat eraman zuten hemendik, Isabel, jo eta ke ari tzen dena mutikoari Altoren hizkuntz zaharra erakusten. Ideia borobil-borobila.

EDERRA

Iturriotz kalea, 12 Tfnoa: 79 96 25

**ARRASATE
PRESS**

79 71 64

Lagunak Oro Lagun Aron



Enpresakoak

Ondasunetakoak

Pertsonalak

Nekazaritzakoak

Lagun Aro Aseguruetan gure herriari konfidantza osoa eskeini diegu, eta berak, gogotik igorri digu. Horregatik, gure ahalmen aseguratzailea hobetzen saiatzen gara, Euskalerriko bezero guztiari zerbitzu onena emateko asmoz.

Lagun Aron poliza mota zabala daukagu, estaldura sendoenekin, une bakoitzean klienteei seguritate gorena eskeintzea posibilitatzen diguna.

Lagun Aro Europara begira dago, europar sendietatik % 20a aseguratzen duen Europako Kooperatiba Aseguruen Elkartearen partaidea bezala.

LAGUN ARO
SEGUROS ASEGURUAK

Lan Kide Aurrezkoa Taldekoa

“Alternatiba bakarra Islam da”

Antton Lopez, musulman bihurtu den arrasatearra

Erljioa indarra galtzen ari den gizarte honetan, pertsona batek txikitatik ezagutu ez duen erlijioa besarkatzea nahiko arraro egiten zaigu. Hau da Antton Lopez, Granadan bizi den arrasatearraren kasua. Anttonek, arrasatear gehienon antzera, erlijio kristauan hezitako gizona dugu, baina duela zenbait urte Islam-a ezagutu eta berau hartu zuen erlijiotzat.

— *Arrasate Press: Nola ezagutu zenuen erlijio musulmana?*

— *Antton:* Egia esateko, erarik harrigarrienean ezagutu nuen Islam-a, bat batean... Nolabait, musulman egun batean bihurtu nintzela esan daiteke.

Bilatze barne prozesu batek une batean eskaintzen zaizun zerbait ezagutzera eramaten zaitu. Zuk ikusi, hausnartu eta ezagutzea erabakitzen duzu.

— *Lehenago seminarioan ibilita zaude ez?*

— Bai, seminarioan egon naiz eta politikan ere aritu izan naiz. Nik gauza askotan hartu izan dut parte. Hala ere, bizitzari eta barne munduari zentzua ematen dioten galderen erantzuna ez nuen aurkitzen. Lehenbizi seminarioan ibili, horrek asetzen ez ninduela ikusi nuenean marxista, leninista, maoista izan nintzen. Guztiz ateo bizi izan nintzen. Edonola ere, hor ere bazegoen falta zen zerbait eta azkenean Islam-ekin egin nuen topo. Islam-en nire galdera guztiak erantzun oso sakonak aurkitu dituzte, galdera guztiak desagertu egin dira eta betirako hartu dudala esan daiteke.

— *Estatuek aspaldi banatu zituzten botere politikoa eta erlijioa. Herri musulmanetan badirudi hori ez dela ematen?*

— Gizona ezin duzu puskatan banatu, gizon soziala, politikoak, kulturala... Is-

lam bizitzaren alderdi guztiak neurtzen dituen konportamendu kodigoa duzu. Ezin izan zaitezke musulman gauza baterako eta beste baterako ez. Musulman guztiz musulman izateko da.


— *Gonbara al daitezke erlijio kristaua eta musulmana. Zein desberdintasun edo parekotasun dute?*

— Islam-en nire tradizio kristauarekin topo egitea, ezuste ikaragarria izan zen. Musulman egitean bibliako gauza ugari Coram-en aurkitu nituen. Musulmanok, Adam, Moises, Isaac, etab.engan sinisten dugu, Jesus-engan eta Mariarengan ere bai. Hor dago gure desberdintasunik nagusiena. Gure ustez, Jesus profeta da eta ez Jainkoa. Jesus jduentzat Jaikoak bidalita-

“Emakumea ama da nagusiki. Bere funtzioa haurrak izan eta hezte da”

ko profeta izan zen. Jesus-ek, berak, hurrengo profeta iragarri zuen, Mohamed. Seminarioan bizi izan naiz, utzi eta Jainkoa ukatu egin nuen. Bat batean, Jainkoarekin egin nuen topo, bazela onartzera behartuta ikusi nuen neure burua.

— *Horrela pentsatuta ez al zinateke hobeto biziko herri musulman batean Marruecos, Tunes...?*



Antton Lopez

— Baina ez dago benetako herri musulmanik. Gaur egun ez dago herri islamiarrik. Musulman deitzen diren herrietan gizon musulmanak daude baina ez estatu musulmanak. Ez dago egoera politiko musulmanik. Horrelako zenbait herritan benetako musulmanak gaizki ikusiak daude, jazarkundea jasaten dute.

Gaur egun munduak duen alternatiba bakarra Islam da. Komunismoa erori egin da. Jadanik ez da alternatiba.

— *Herri musulmanetan*

ezkondu bezain laster ama izan nahi du. Emakumeek bizitzan egin dezaketen gauzarik garrantzitsuenak haurrak izan eta beraiek hezte da. Gizonak emakumeari zeregin hau betetzen lagunduko ez dioten arazo guztiak kendu behar dizkio. Horregatik emakumea etxe barruan arituko da eta gizona etxetik kanpo.

— *Bitxikeria gisa, zein eritzi duzu Shalman Rushdie kasuaz?*

— Jomeinik gaizki egin zuen. Lehenbizi Rushdie hil egin behar zuten eta ondoren munduari zergatia azaldu. Rusdiek profeta eta Islam-a iraindu ditu. Kontutan izatekoa da Rusdiek zertan zebilen bazekiela, gizarte musulmanean jaio eta bizi izan delako. Lehenago ere egon dira horrelako kasuak, ez asko baina zenbait bai.

— *Emakumeen beloa?*

— Beloa ez da Islam, Islam baino ohitura zaharra da. Islam-ek zuen emazteak estali itzazue baina ez du esaten. Emakumearen gorputzean zenbait atal intimoak dira, lepotik esku-mutur eta orkatiletaraino. Baina aurpegia ez dauka zertan izkutatu.

badirudi emakumea zapalduagoa dagoela...

— Bai hori egia da. Baina ezin esan daiteke Islam denik emakumea zapaltzen duena. Islam-ek emakumeari errealitatean bere benetako lekua ematen dio. Gaizki bizi diren emakume horiek, Islam praktikatzeari utzi dioten gizonen emazteak dira.

Guretzat emakumea ama da nagusiki. Emakume batek

Arrasate Kirolak 2. Eguna



Gabonetako atsedenaldia aprobetxatuz, Arrasate Kirolak-
en babespean dauden hainbat eta hainbat taldek egun galanta
antolatu zuten larunbaterako. Horrela, Iturripen, Kiroldegian
eta Atxabalpen ikusi ahal izan genituen kirol ezberdinak:
rugbya, pilota, atletismoa, futbola, saskibaloia eta eskubaloia
hain zuzen ere.



Probak goizez eta arratsaldez jokatu ziren. Iturripen
behintzat, pilotaren inguruan elkartu zen jende kopuru
handiena. Badirudi gutxika-gutxika berriz ere erakargarri
bihurtzen ari dela kirol hau, baina hori bai, instalazioak makal-
makalak izaten segitzen dute.

Atletismoan, jauziak eta
karrera laburrak ikusi ahal
izan genituen. Partizipazio
handirik ez. Eskerrak Dorle-
tako Amaren ikastetxetik
etorri zirela hainbat neska-
mutiko, probak aurrera atera
ahal izateko.



Arrasate Kirolak Rugby taldea, goizez gazte mailan eta
arratsaldez lehen ekipoarekin aritu izan zen. Halako egunetan
emaitzak ez dira hain garrantzitsu izaten; izerdia atera ondoren,
horra non joan ziren mutikote guztiak elkarrekin zerbezak
edatera. Laster itzuli beharko dira benetako lehiaketaren
seriotasunera, baina larunbatean behintzat ederki pasa zutela
esan behar.

♦ ♦ ♦ ♦

Esan bezala, beste kirol taldeak ere jo eta ke ibili ziren egun
guztia. Futboleant, ohorezko mailako gazteek partidu polita
jokatu zuten Errealaren aurka, Atxabalpen. Azkenean, Errealak
3, Mondrak 1.

ITURRIOTZ TABERNA

GIRORIK

JATORRENA !!

Tfnoa: 79 16 04



MIREN

APAINDEGIA

Zarugalde 23, 2. Ezk.

Tfnoa: 79 96 90 ARRASATE

podiuma

Josu Errasti,
pilota-harrobiaren fruitua

Indarrean dago pilota Arrasaten, Iturripeko frontoia beti mutikoz gainezka. Josu ere horietakoa dugu, Zurdo, Arriaran eta Urraren ondorengo bihurtu nahi duen horietakoa.

Hamahiru urteko mutiko argia. "Pilota izugarri gustatzen zait, kirol ikusgarria da benetan. Futbolearen ere aritzen naiz, Mondran, baina aita pilota taldean sartua dago, eta bere zaletasuna kutsatu dit".

Arazoak egoten omen dira bi kirol batera egiteko orduan. "Sarritan, egun berean eta ordu berean futbol eta pelota partidua jartzen dizkidate. Ez dakit, laster bata ala bestea aukeratu behar, eta seguraski pilotarekin segituko dut".

Galdetu Josuri aurrelari edo atzelari lanetan aritzea nahiago duen, eta berak berdin zaiola erantzun. "Biak dira toki politak pilotan aritzeko. Agian ikusgarriagoa da aurrelariaren jokoa, baina ez pentsa, ederra da ere atzean jarri eta ahalik eta pilota gehien eramatea...".

Pilotaren aukera, banaka edo binaka jokatzeko. Adin horietan, komenigarria omen da bata zein bestea probatzea. "Dena den, nik nahiago dut bakarka jolastu, bikotearekin oso konpenetratua ez bazaude behintzat. Zergatia argi dago, bakarrik jokatzen duzunean eta huts egin, ezin zaitezke inorekin haserretu, zure errua izan delako. Bikoteka berriz, gehienetan bestearekin eztabaidatzen bukatzen duzu. pilota hori



zurea zela; ez jauna, zurea..."

Iturripen, mutikoez gain makina-txc bat gizon heldu biltzen da. Pilota taldearen arduradunak dira, eta benetan saiatzen jokalaria gustora aurki daitezten. "Noski, aholkuak askotan oso ondo etortzen zaizkigu, oraindik ere denboraz egoten garelako okerrak zuzentzeko. Dena den, batzuetan kaparra xamar ere jartzen dira, bai horixe!"

Orain gutxi amaitu zen Santamas X. txapelketa, non ehun mutikotik gora ibili ziren lehia bizian. Josuk ere parte hartu zuen bertan, eta txapeldun geratu haur mailan. Txapeldunak txapeldunen ondorengo izaten dira, horregatik galdetu diogu Josuri nor den gehien miresten duen pilotari profesionala. "Kantxa barruan dudarik gabe Retegi da onena; baina pertsona moduen ez, izateko eran atseginagoa iruditzen zait Joxean Tolosa".

Ba segi gogor entrenatzen, Josu, Tolosa ere horrela heldu bait da gailurrera. Entrenatuz, entrenatuz egiten bait du kirolariak bidea.

Mondrak bai!

Larunbat arratsaldean, ligako partiduan Zalla taldea hurbildu zen Atxabalpera, indarrak arrasatearren neurtzera. Egia esan, gure taldea ez dabil aparteko gauzarik egiten aurtengo denboraldian, baina etxean jokaturako azken neurketak irabaziak zituen behintzat.

Gauzak horrela, partidua 3,30etan hasi zen. Joku aspergarria lehen zatian, eta zaletuak urduri.

Agian horregatik, susmo txarrak urruntzeko edo, atsedendian soinu-jole, dultzainari, txistulari eta abeslariak irten ziren zelaiaren erdira, Mondraren ereserki berria jotzera.

Badirudi detaile honekin gure jokalaria berotu egin zirela edo; ondorioz, bigarren zatian Mondraren bi golak heldu ziren, Aranburuzabala eta Ikerrek lortutakoak hain zuzen ere. Eskerrak eurei, 80 hamar-kadako azken emaitza positiboa izan zen Arrasateko taldearentzat. Ikusi behar orain zer lortzen duten hasi berria den 1990ean!

Sari banaketa

Datorren igandean emango dira aurtengo Aukea sariak, 88-89 denboraldiko kirolari eta kirol talde onenei zuzendutakoak. Gogoratu irabazleak Jose Antonio Gay eta Arrasate Kirolak Rugby taldea izan zirela. Zorionak!

Denborapasen soluzioak

Bertako hitz ahaztuak

A M A R R A T Z A



OKENDO
KIROLAK

Iritsi da OKENDO KIROLAKera udazken-neguko moda!

Maalako errabala 13, Tfnoa: 79 92 76 ARRASATE

Energia alternatiboak

Ikerlan, Cadem eta LKS partaide direlarik, joan den urriaren 23an sortu zen energiaren kontrolerako sistemez arduratuko den injinerutza enpresa berria. Sozietate anonimo eran antolatuko da BENS. S.A izenaz.

Buela bi urte aurkeztu zion CADEMek Ikerlani proiektua eta Arrasateko Ikerketa zentru horretan lortutako teknologia erabiliaz enpresa sortzeko modua aztertzen hasi ziren. Proiektuaren bideragarritasun ikerketa Lankide Aurrezki Kutxaren esku utzi zen. Orain eratu berri den Baltzu enpresan Ikerlanek akzioen %42a du, CADEMek %45a eta LKSk %12a. Teknologia lehengo CADEMek eta Ikerlanek jarri dute, guztira 33 milioiko inbertsioa burutuz.

Enpresaren egitekoa energiaren

kontrolerako sistemaren injinerutza lanak, proiektuak eta instalazioa egitea da, azken hori giltza eskuan dela. Produktuak, elkarrekin komunikatutako ordenagailu sarea izango da, software eta hardware pakete eta armairuz osatua. Oinarrizko ordenagailu itxurari zein salneurriari gagozkiola, ordenagailu pertsonal baten modukoa izango da. Ordenagailu hau eraikuntzen (etxebizitza-multzo, ikastetxe, biltegi, lantegi, bulego eta antzekoen) sistema guztia kontrolatzeko aski izango da. Berak bakarrik kontrolatuko lituzke berogailu, aire egokitu, alarma eta segurtasun sistema, eta horietako edozein sistema konbentzionalekin bateragarria izango da. Orain arteko ahaleginetan ez dira industriaren mundura gehiegi hurbildu, Iñaki Larrañaga, Enpresaren arduradune-

tako baten hitzetan, baina arlo publikoan egindako saioetan arrakasta handia izan dute.

Oraingoz bere egoitza Lankide Aurrezkiaren eta Ikerlan-en baldin badu ere, laster batean Zamudioko Parke Teknologikoko "Nido" Eraikinerara joango da. Une hauetan proiektuarekin lanean diharduen taldea sei lagunez osatua badago ere, egin dituzten estimazioen arabera lau urtetan 12-15 pertsonarentzat lanbide izango litzateke, eta sortuberria izan arren, enpresak inolako laguntzarik gabe aurrera irteteko itxura guztiak ditu. Harrera on horren arrazoietako bat, LKSk proiektuan dituen kideek eskaintzen duten bermea da, Ikerlan teknologian punta-puntan dagoelarik eta CADEM, berriz, energiaren aprobe-txamenduan aintzindari lanetan.

TU-Lankidetik hartua



Anboto

INBERTSIO ETA ZERBITZUAK
AHOLKULARI INMOBILIARIOAK

Salgai edo alokatzeko dauden etxeak, Leintz bailara eta Oñati aldekoak batez ere, behar ditugu Anboto Inmobiliarian

Propietate inmobiliarioaren agenteak, inmobiliaria honetan egindako salmenta eta kontratuak garantizatzen dira.

FIDA ZAITEZ

Iturriotz kalea, 11. Tfnoa: 79 20 48 ARRASATE

KORTAZAR
EDARITEGIA

Pintxo bereziak
GIRO APARTA

Barrenkale 16,
Tfnoa: 76 20 62
BERGARA

lurrundegia, opariak
jostailuak

Z a r r a o a

apaindegia

LORATEGI

taberna

Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67

Albert Pla, moltes gracies

Albert Pla: "Ho sent molt".
PDI argitaletxea.

Testu gogorak, bortitzak, gordinak, kaka izendatzeko "kaka" hitza erabiltzen dutenak, gizarteko hainbat espezimen eta egoera inongo kupidarik gabe deskribatzen eta zirikatzen dituztenak.

Musika xumea, minimalista, bi-lutsia, elementu gutxi erabiliaz doinu sarkorretan gauzatzen dena, testuen intentsioa azpimarratzeko egi-na dirudiena eta, hala ere, indar propioa hartuz doana, entzun ahala.

Ahots mehea, emea, xuxurlaria, hortzetatik apenas kanporatzen dena, kantuak kantatu baino gehiago kontatu egiten dituen eta, hala ere, hatzapar indartsu baten antzera entzulearen bihotza harrapatzen duena.

Produkzio-lan murrizta -instrumentu bakanak, tarteka eta han-he-



menka-, lehen entzunaldian zeharo pobrea dirudiena eta, hala ere, doinuak estali orde lehen mailan jartzzen dituelako, azkenean guztiz egokia azaltzen dena.

Disko harrigarria, hitz batez, Albert Plak egin berri duen hau. Harrigarria, lehenago aipatutako

osagarri horiek oreka perfektuz nahasten dituelako. Harrigarria, abangoardiari begira dagoen musika gozoa indar zirikatzailez eta epatatze-ko grinaz beteriko testuekin hain ondo lotu duelako. Harrigarria, egilearen lehen diskoa izanik lan borobila delako, hastapenetan ohizko diren gehiegikerietatik libre. Eta harrigarria, neurri batean, Catalunya-tik eta katalaneraz kantatuta datorrelako, aspaldian ez bait zaigu handik gauza haundirik iritsi.

Zuri, irakurle, diskoa entzuteko aukera izaten baduzu, bi aldiz behintzat entzun dezazun gomendatuko nizuke. Eta erraz eskandalizaten ez bazara, testuak katalanez jarrai ditzuzun ere bai. Oso tarte ona pasatuko duzu, ziur.

Eta zuri, Albert Pla, besterik gabe, moltes gracies.

Mikel Irizar

ARRASATEKO UDALA

Udaletxe eta honen ondoko edifizioaren ekipamendurako altzariak erosi eta instalatzeko deitutako lahiaketan proposamenak aurkezteko epea 1990eko **URTARRILAREN HOGEITAHIRUAN** amaituko da. Oinarriak abenduaren 28ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

Arrasate, 1989ko abenduaren 29a

Alkatea

BAKAILO ETXEA

Makailoa eta beroni buruzko produktuak
Makailoa, kroketa eta piper kazolak prestatzen ditugu
Mondragones 7, (Azoka ondoan) Tfnoa: 79 93 07 ARRASATE



Alfonso X. Jakintsun, 5
Tfnoa: 79 70 39 ARRASATE

Euskararen jatorria

Ez da harrizkoa euskarak hizkuntzalari, jakintsu eta gizon kulto askoren kuriositatea piztea.

Ahaidetasunik ez

Kuriositate hau askoz handiagoa da hizkuntz zientziak joan den mendean egin zuen aurkikuntzaz geroztik. Aurkikuntza horren arauera, bai hizkuntza greko-latinoak (frantsesa, gaztelera, italiara...) bai anglo-germaniarrak, zeltarrak eta eslaviarrak (alemaniera, ingeleza, noruegoa, suediera, daniera, irlandera, eskoziera, islandiera...) familia berekoak dira: indo-europear familiakoak, hain zuzen. Honela euskararen enigma nabarmendu egiten da, familia ezagunetan lekutzeko posibilitatea murriztu egiten da eta.

Teoriak jatorriaz

Euskararen jatorriaren gainean dauden teoriarik entzutetsuenak aipatuko ditugu:

— *Teoria euskal-iberiarra.* G. Humboldt-ek aintzinako iberoaren hondarra

zela uste zuen, Penintsulako herri inbasoreen erasoetatik bizirik apartatzea lortu zuena. Baina iberiar idazkiak deszifratzea lortutakoan, hizkuntza honen eta euskararen gonparazioak ezezkoa ematen duela dirudi.

— *Teoria euskal-kaukasiarra.* Pablo Roca, antropologo frantziarra, kaukasiako hizkuntzetan euskararen leinuki-deakf zientifikoki bilatzen saiatu zen. Teoria honek jarraitzaile gogorrak ditu. Mitxelenak, ostera, ez zion baliorik ematen.

— *Bereber hizkuntzarekin erlazionatu nahi duen teoria.* Vienako K. Mukarosvky irakasle jakintsuak Afrikako hizkuntzetara (Marrocco, Algeria) jotzen du. Honen ustez euskara eta bereber-a elkarrengandik aislaturik geratuko ziren, tartean beste hizkuntza batzuk sarturik. Inkomunikaturik eta inguru oso ezberdinetan eboluzionatu dutenez, desberdinak dira. Teoria honek ere ez duela fidagarritasun handirik ematen du.

— *Hazkunde lokalaren aldeko teoria.* Badira euskarak hazkunde lokala eduki duela uste duten autoreak ere. Mendez-mende bizi izan den lekuan bertan sortua da hauentzat, baina hedadura handiagoa zuen, eta denboraz lurrrak galduz joan da. Duela zazpi mila urte inguru sortua da euren ustez.

Hona hemen J. M. Barandiaran ataundarrak dioena:

“Euskal gizakia ez zen gure herritik kanpora sortu, hemen bertan, Mendebaldeko Pirineoetan, Gro-Magnon gizakia-rengandik eboluzio autoktonoz sortu zen. Urtiaga-ko haitzuluan aurkitu diren garezurretan garbi ikusten da hau”

Beraz, hainbat galdera erantzunik gabe geratzen da: indo-europear hizkuntzen artean euskara irla bat bada, nola irau du? Munduko zein hizkuntzaren ahaide dugu? Beste nonbaitetik etorri bada, nondik eta nola? Zer hedadura eduki zuen lehenengotan?

Atalataiko taldea

SOKOA

Zeharkale estalia Arrasate

LURRINDEGIA

ERTZ

OPARIETAKO ARTIKULOAK

Ferrerias 28, B. Tfnoa: 79 08 70 Arrasate

Onduline

TXOMIN HERIZ



eraikuntzarako materialak

Biltegia: Bidekruzeta 1. Tfnoa: 79 23 18 ARRASATE

JAI ZORIONTSUAKI



Sport

SASIAIN

Zaraia 4, Tfnoa: 79 77 63

ARETXABALETA

MARI MAR ARTILEAK

Puntozko jantziak eskuz eta makinaz egiten dira

Kalealdea 13, B. Tfnoa: 79 65 93
ARRASATE



ARRASATEKO UDALA

Udal-Plenoak, 1989ko abenduaren 15ean egindako bilkura berezian, hartutako akordioen laburpena.

- Jokin Zaitegiren heriotzaren X. Urteurrena dela eta, A-13-1ean kokaturiko orubean egingo den plazari eta Monterron Kultur Etxeko biblioteka bati haren izena ematea.
- Lan, zerbitzu eta merkatal arloan euskararen erabilpena areagotzeko, zenbait ikastola, elkarte, enpresa eta erakunderekin hitzarmena sinatzea.



Udal-Plenoak, 1989ko abenduaren 28an egindako bilkura arruntan, hartutako akordioen laburpena.


- Ferixalekuan pilotalekua eraikitzeko obrak adjudikatzeko lehiaketa publikoaren deialdiari buruzko proposamena mahai gainean uztea.
- Iturripen kiroldegia eta pista balio-anitzak eraikitzeko obrak adjudikatzeko lehiaketa agindu behar duen Baldintzen Plegua onartzea eta dagokion deialdiari buruzko proposamena gainean uztea.
- Musakola auzoan dagoen S-13.1. Sektorea urbanizatzeko proiektua behin betiko izaeraz onartzea.
- Arrasateko Udalerriko Zoru Ez-Urbanizagarriko Arau Osagarrien aurrelaburpena, 30 eguneko epe batez, jendaurrean jartzea.
- Udalaren 1989ko aurrekontuaren kredituak aldatzeko 3. espediente onartzea.
- AUKEAren 1989ko aurrekontuaren kredituak aldatzeko 2. espediente onartzea.
- Iturbide Egoitzaren 1989ko aurrekontuaren kredituak aldatzeko 2. espediente onartzea.
- 1989ko aurrekontuaren Erresulta-bajak onartzea.



Udal-Plenoak, 1989ko abenduaren 29an egindako bilkura berezian, hartutako akordioen laburpena.

- 1.- Herriko merkatal establezimenduei "Arrasateko errefuxiatuen eta presoen senideei laguntza taldeak" egindako dirulaguntza eskabideak direla eta, EAJ, EA, EE eta PSE talde politikoen aurkeztutako kondena-mozioa onartzea.
- 2.- Herriko zenbait talde eta elkarten aurkeztutako "Gauza guztien gainetik... presoen eskubideak" izenburuko mozioa ez onartzea.
PSE taldeak presoan egoerari buruz aurkeztutako mozio alternatiboa ez onartzea.
EA, EAJ, eta EE taldeek, gai berari buruz, aurkeztutako mozio alternatiboa onartzea.

IDAZKARIA ALKATEA



HIRU S. A. MEKANIZAZIOAK

- * *Doltasunezko mekanizazio plano eta langileen arabera*
- * *Fresatzeko makinak*
- * *Zenbakizko kontrola*
- * *Mekanizazio-zentroak*
- * *Tornuak*
- * *Artezko makinak, etab.*

Zaldispe kalea 10, ARRASATE
Tfnoak: 79 67 80 / 79 05 61 Posta kutxa 95. Telefax: 798097

Gamei, S.A.

MARRUSKADURAZKO PRENTSAK
PRENTSA ESZENTRIKOAK
PRENTSA HIDRAULIKOAK
TORLOJODUN ERAUNSPENEZKO
PRENTSA
TOTXOTARAKO ZIZAIK
DEFORMAZIO MAKINA BEREZIAK

Nafarroa Etorbidea, 31 Tfnoa 79 55 00 Telefax 79 03 97
ARRASATE

Obea

SEGURITATEA
ZURE
ZERBITZURA

Mantenimendua
Berriztapena
Izogallu eta jasogalluen
muntaila

ESKA EZAZU
AURREKONTUA

Bulego zentrala: Jose Luis Iñarra
P., 22 Tfnoa: 79 12 08
ARRASATE

ARRASATE
PRESS

79 71 64

Gabonak, gartronomia eta osasuna

Mahai onak, jaki gozoz beterik garrantzi berezia izaten du Gabon garaian.

Gure gizartean inork ezin burutu ditzake jai hauek, egun berezi horietan mahaia janari fin eta gozoz beterik egon gabe: txerri hestikiak, itsaskiak, arrainak, okelak, turroiak, mazapanak... eta gainera ardo, txanpaina eta hainbat edarik lagunduz.

Hau, batzuentzat plazer eta gozamenaren iturria bada ere, beste batzuei kezka eta larritasuna sortzen die: hipertentsioa, diabetisa, hezueria (gota) dutelako edo bestela edozein erregimen daramatelako kolesterola edo "azido urikoa" jetxi arazteko. Horregatik ospakizun hauek larritasunez beterik igarotzen dituzte. Noski egun hauetan erakusleihotan edo telebistan eskaintzen zaizkigun janariak eta hainbat per-



tsonak gozoz jaten dituztenak "sendagileak debekatuak izan dira": honetatik ez jan, horretatik edatea ez zaizu komeni, kontuz urdai azpikoarekin, adi, turroia kaltegarria da zuretzat... behin eta berriro belarrietara etortzen diren aholkuak dira. Horrelako janari gozo eta gustokoari begirada botatzen zaionean, hauek dastatzeko gogoari amore emateko arriskua haunditzen da. Askotan krudeltasun haundiz senideartekoez izugarritzko gaitzekin, torturatzen dituzte solomoa, urdai azpikoa edo otarrain-txoak jateko gogoari amore emateko tentazioan jautziz gero.

Beno ba, zure kasua hau bada, lasai zaitez, ez gehiago torturatu. Ez da ezer gertatzen jai hauek direla eta pittin bat "pasatzen" bazara, zure aho finari gustoa emanaz.

Hurrengo urteko jaiak heldu bitartean egun asko ditugu aurretik gure burua zaintzeko. Gainera urtarrilean Erregeen jaiak igaro ondoren, lerro hauen bitartez, garai honetako gozamen gastronomikoen ondorio txarrak, sortu badira, konpontzen lagunduko dizkizugu.


Diabetikoez, ordea, ez dute arduragabetzerik, odolean glukosa igoez gero disgustu galanta ekar dezakeelako. Jaki gozoez pittin bat pasatzen bazara hartzen duzun antidiabetikoen neurria ajustatzea derrigorrezkoa da.

Urte berri on!!

*Eukeni Olabarrieta
Arantxa Lizaso*

Bainugela-erakusketa

I RE KI B E R R I A !!!



ibarluzea

Olarte 19-21, Tfnoa: 79 22 49 ARRASATE



**ARAMBURU
COTEMAR**
garraio agentzia



Zaldizpe 3, Tfnoak: 79 52 34 / 79 53 99 ARRASATE

ALTUNA

Lurrindegia
bisutegia
drogeria

Maalako Errebala
Tfnoa: 79 14 23

Bidaia, oinez

Abenduaren hasieran izan ziren laupabost jaiegunak aprobetxatuz, aspalditik gogoan geneukan bidaiari ekin genion.

Bidaia honek hasera Arrasaten eta helmuga Aralarko Mikel Deunaren Santutegian zuen, mendiz-mendi, oinez, etxetxoa eta beharrezko guztiak bizkarrean zeramatzagula.

Arantzazuko Iturrigorriko zelaietan pasa genuen lehenengo gaua.

Hurrengo etapa, Arantzazu-Etxegarateko mendigaina 6-7 orduko bidaia; Urbiatik zehar San Adrianen Mikeleteen kuartela izandako refugioraino, bertan jan beharreko arraultz eta txorixu frijituak dastatuta, Otzaurterainoko pista hartu genuen, handik mendi tontortxo bat igarota Etxegarateko portugaina begibistan eduki genuen arte. Gaua bertan igaro eta hurrengo etapa hasi genuen: Etxegarate-Lizarrusti mendi



gaina, sei-zazpi ordutako bidaia baita.

Hasieran igo beharreko aldapa gogor batzuk gainditu ondoren, tontorrez tontor, ehiztari postu, txabola, eta aintzinako trikuharri,


kromletx eta tumuloak bidexka ertzean utzita, pago arteko paisaia ikusgarria mirestuz, Lizarrustiko Benta Isabel izeneko etxeraino heldu ginen. Gaua bertan igaro eta azkenengo etapa genuen: Lizarrusti-Aralarko Mikel Deunaren Santutegia.

Goizean goiz jeiki eta aldapari etengabeki jarraituz Aralarko "Guardetxeraino" helduz, bazkari ezin hobea egin eta Santutegirako asfaltaturiko bideari ekin genion eta ordu baten epean bertan geunden. Gure bidaia hemen bukatu zen arren inolako arazorik gabe, egun gehiagoren beharreakin soilik, Iruñera heltzeak ez du inolako zailtasunik, Andia medikatea zeharkatuz.

Bidaia amaitua zegoen, eta botatako izerdien ordaina eskuratua: Euskal Herriko mendien edertasuna.

Hankamotz

AE Elkoro



Zure antena txarto badabil, esaiguzu, konpondu egingo dizugu!

Antena parabolikoak, indibidualak eta kolektiboak konpontzen espezialistak.

Magdalena 27,
Garibai 10,
Alfonso X 6,

Tfnoak: 79 18 86 eta 79 45 99 ARRASATE

Zure erosketak AKOBEN egiten badituzu KOTXE bat irabaz dezakezu



ZOZKETA
1990eko
urtarrilaren
19an

Volkswagem
Polo Coupé GT: 5cv.
autoa

THOMSON
VTS-200 Bideoa
40 aparatu

Notario aurreko ZOZKETA

Akobe



Jose Aranzabal

Elektrogailuak. TB. Bideo

Iturriotz 15, Tfnoa: 79 15 16

KOLTZA - *Jose Aranzabal*

Sukalderako altzariak. Oparigaiak

Bañez doktorea 8, Tfnoa: 79 18 92



OYSTER BAND

Urtarrilak 12, ostirala

Gaueko 10,30etan

Amaia antzokian

Sarrera: 500 pta.

Arrasateko Udaleko Kultura Batzordea

Lore lurrindegia

Olarte kalea 10, Tfnoa: 79 14 99 ARRASATE

**FELIPE
MADINA
ZURAK**

Zarugalde 40, Arrasate 79 13 78

ETXEBIZITZAK

- Haurrik gabeko bikote gazteak Arrasaten pisu alokatua behar du. Tfnoa: 79 30 20.
- Uribe auzoan pisua salgal ganbara eta garajeaz. Tfnoa: 79 49 66
- Muntatuta dagoen pisuan gela hartuko nuke. Jose Manuel Tfnoa: 49 14 53 . Dei egin 8etatik 10etara.
- Errentan hartzeko etxabea edo merkatal lokal bila gauzak sartzeko. Tfnoa: 79 94 00
- Jantzitako pisuan logela bila. Tfnoa: 49.14.53 (Jose Manuel), gaueko 8etatik 10etara.
- Pisua salgal Uribururu kalean. Tfnoa: 79 81 79
- Pisua salgal Udalpe kalean. Tfnoa: 983-39 41 90
- Pisua salgal J.L. Iñarra kalean. Tfnoa: 79 20 03
- Pisu berri-berria Erguin kalean salgal. Gas naturala eta ur beroa, egongela, bi bainugela, sukalde ekipatua. Tfnoa: 79 19 96
- Neska behar da Donostian pisua konpartitzeko. Tfnoa: 76 43 74 (arratsaldeko ordubetan)
- Ikasleak Donostian pisua konpartitu nahiko luke. Tfnoa: 27 86 84. Astegunetan arratsaldez.
- Zigarrolan pisua erosiko nuke. Interesatek deitu 79 62 89 tfnora.
- Neska behar da Bilbon pisua konpartitzeko. Tfnoa: 79 98 30
- Uribe auzoan aparkalekua alokatzen da. Dei 10etatik 11etara 79 69 59 tfnora.

LANA

- Neska arduratsua etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko gertu. Esperientziaduna. Tfnoa: 79 45 92. Arratsaldeko 3etatik 4'30ak bitartean edo 8etatik aurrera deitu.
- Ingelesezko klaseak emateko pertsona behar da, astean 3 edo 4 ordu, goizetan (goizean goiz hobeto) interesatek deitu 78 07 85 10etatik ordu letara, astegunetan.
- Neska edo emakumea behar dugu, etxeko lanak eta haurrak atenditzeko goizeko 9etatik 13etara eta arratsaldeko 4etatik 7etara. Informerekin. Tfnoa: 79 64 50
- Neska haurrak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Deitu azkar 79 42 69 Tfnoa.
- Ingelesezko irakaslea behar da "Bilboko 3." kurtsoa neska bati emateko. Tfnoa: 79 57 53 (21etatik aurrera)
- Bi haur zaintzeko eta etxeko lanak egiteko pertsona behar da. Lan orduak:8-18. Tfnoa: 79 79 69 (8etatik aurrera)
- Haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko emakume edo neska behar da. Tfnoa: 79 35 44 (7etatik aurrera)
- Euskara irakaslea behar da O.H.O.ko 6. mailako haurrari euskara klaseak emateko. Interesatuak deitu 79 37 87 tfnora. 7etatik aurrera.
- Asteburu gauetan haurrak zainduko nituzke. Ikaslea. Tfnoa: 79 99 82. 9etatik aurrera. Miren.
- Emakume euskalduna prest etxeko lanak egiteko edota umeak zaintzeko. Dei egin 79 07 73 Tfnoa.
- Emakume edo neska euskalduna behar da haurrak zaindu eta etxeko kanak egiteko. Lan baldintza onak. Interesatuak dei dezala telefono honetara: 79 88 14, arratsaldeko 8etatik aurrera.

SALEROSKETAK

- Fagor markako lkuztallua salgal. Ondo dago eta merke salduko nuke. Deitu 7,30etatik aurrera 79 82 47 tfnora.
- Venguri kitarra elektronikoa salgal, 3 Fender pastilaz, Strato Caster eta dagozkion kableak, Anplifikadore bi Doobie sarreraz, Pedal distorsioa MxR, egoera onean dagoen maleta, Jibson korda-joku bat.
- Umeentzako kotxe itsasurdina, Arrue markakoa, prezioa: 15.000 pta. Tfnoa: 79 7742 (10etatik 12etara)
- "Amstrad" Jokuak salgal. Denak erdi prezioan eta egoera onean (disketetan eta kasetetan). Deitu 7etatik aurrera 79 49 03 tfnora. Gorka.
- Zure argazki-makinarentzako Panagor markako 200 mm-ko telea salgai. Diametroa 62. Oso merkea. Tfnoa: 79 71 64
- Micro Genie V-60 organo elektronikoa salgal. 8 ahots polifoniko, erritmo kontrola, efektuak mota melodikoak eta musika laguntzaz etab.. Intesatek dei 79 33 35 tfnora. 8etatik aurrera
- Ralder 2WD auto Irrati-kontrolatua salgal, Challenger 250 irratiak . Baita bateriak eta beste, berri berria. Tfnoa: 79 52 31 . Iban 8etatik aurrera.
- 5 urtetik 9 urtetako umeentzat bizikleta salgal BH markakoa, ia berria eta merkea. Tfnoa: 79 04 10 . 6etatik aurrera.
- 4/4 neurritako bibolina salgal. Interesatuak deitu 76 52 15 tfnora.
- Narruzko jaka salgal. Ona eta merkea. 55 tailakoa ia berria 79 89 51 Tfnoa.
- Ebro M-140 kamioia SS-Y salgal txarteka nazionalarekin. Interesatek dei 81 01 61 Tfnoa.

†
ARRASATEN HILDAKOAK

Catalina Solis Reyes
79 urte. Urtarrilaren 1ean.

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK
DIAN. TESTUA IDATZI ETA
BIDALI GURE BULEGOETARA**

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....


.....

Arrasate Pasalekua 3 bis, etxabea.
20.500 ARRASATE Tfnoa: 79 71 64

Famauen ahotik

Pedro Sologaitoa "Laso" (II):

"Berrogeitabatien fitxau naixuan realakin eta beratzi hillebete eñ nittuan"



Realakin fitxau

Berrogeitabatien fitxau naixuan realakin. Fitxau aurretik partidu amistosuek eitten zittuan pruebarako. Joxe Mari Aranburu, Monti eta neuri deittu juzkuen. Trena eta bazkaixe pagaute gaukela eta jueteko. Orduko Patri realien jabillan eta harekin juen nitzuan, beste bixek ez zittuan agertu eta. Silbeti entrenadoriana eruen nindduan eta harek, "comida de jugador" eñ biher zala. Saldie uzeifidu, okelie ahuen eballi eta bota...

Bazkal ostien Atotxara

Bazkal ostien bete-bete eifidde jueten gaittuk Atotxara eta entrenadoriorrek, jantzi eta urteteko. Urten juat, halako baten, etorri jatek baloie neure aldera, jo eta postera. Danak uuuuu!

Astelenen ondiokan porterie dardaraka jauan. Hurrengo domenak, Martin Bixin Gaseoseixan firmau naixuan fitxie. Bi mille pezeta eskuen eta hillien 350 pezeta.

Billete bixok hartu eta aifiketana amana, erakutsi eta, "mutikua ho-

neik zer dittuk ba, zirkorako entradak ero..."

Sekule mille pezetakoik ikusi barik jaukan.

Entrenadore be bai

Tenporadie hasi zaniene Manukak ez auela entrenadore jarreittuko eta Bastidak, neuri esan jutzan eta hala hasi nitzuan.

Baten, partidue jokaketako hamar besteik ez geontzan eta Antoito Uribetxebarria Monteniene jokuen jabillan eta hari esan nitzan. Orduentxe debutau jua. Antoitek mife kanpora atarata jokaketako kostumbrie jaukan haundixe. Halako baten, baloie goittik etorrela, buruaz emun jutek eta hango kurriskak!

Miñoi harrapau jua eta larri.

Homenajie

Mirandesetik etorri jatan joketan jueteko inbitazifue, baiñe nobixiekin formal nabillan, oifi andrie danaz, ehun da bi urte banarorian eta ba, ez naukan hemendik urteteko asmoik. Hala behin, Ayala presidentiek esan jutzan; hik jarreittik hemen eta akordauko gaittuk.

Tenporadie akabau zaniene homenajie eifi juztien. San Juan bigarrena zua eta 2.036 pta batu zittuan. Orduentxe ezkonketako nitzuan eta ondo etorri jatan. Lora sortie eta diplomie be emun juztien eta pozik.

Estepan Plazaola eta Jesus Mari Garai

Zelebrequerixak

"Barrenetxe"n kanteran dinamita kargak sartu zittuen eta, kometia jo ondoren, arriskuik etzeuan leku baten ezkutau zien langilliak. Tiruak entzun zien, baiña etzan zarataik. Barrenetxe pentsatzen hasitta zeuan ia ixotu barik ero geldittu zan. Baiña nor urreratu konprobatzera?

Halako batian jaiki zan Barrenetxe gehixao etxoin ezinik eta hola esan zotsen langilliei:

— Mutillak, zuen artien eztagok balio eztabenik?

■ ■ ■ ■ ■

Semiak amai:

— Ama, itsasoko gatza zergatik izaten da hain gazixa?

— Baina eztafik itsasoko ura zerk gazitzen daben?

— Ez.

— Ezetz? Tira tira, gizurra jirudik hainbeste denporan eskolan ibili ondoren horrenbeste ez jakittiak. Bakillauak, mutik, bakillauak.

■ ■ ■ ■ ■

— Tripetatik enabil ondo eta Gimon medikuagana noia.

— Zeu hain mediku ona izanda?

— Bai, baiña nik asko kobratzen dot.

■ ■ ■ ■ ■

Ingleseko maixu bati, berarekin zebilen mutiko batek, "nahikua ikasitta" alde eittera zijoiala, esan ei zotsan:

— Burno, ondo izan. Eta noizbaitten meseden bat egin ahal bado-tsut, esan trankil.

— Hara ba, mesede haundi bat egingo dostazu gauza baten.

— Zer?

— Iñoi ez esan ni izan naizenik zure ingleseko maixua.

Juan Martin Elexpuru

Jai zorientsuak



Olarte 6, Tfnoa: 79 46 94 ARRASATE

ORTZI
erretegia

Angiozar Auzoa
Tfnoa: 76 22 68
BERGARA





Meltxor, Gaspar eta Baltasar edo Meltxor, Baltasar eta Gaspar nahiago baduzue, berdin dio,

1930 inguruan ere etorri ziren Mondragoera, dotore asko ikusten duzuenez.

Errege bezpera zen maiestate gorenak Arrasateratu zirenean. Gazterik nola ez, ez zitzairen inguruan falta. Ingurua aipatu dugunez, esan dezagun

ezkerraldeko etxea ospitale zaharra dela eta atzekaldekoa berriz, berdura plaza, geroko *verdury* famatua.

Ezkerreko erregea Sabin Garai, "Zeleta", berak ekarritako zaldiaren gainean. Zaldiari eutsiz, Telesforo Galdos, urte batzuk beranduago Durangoko bonbardaketan hilgo zena. Alejandro Etxebarria Baltasar dugu. Gerra garaian Amaieur batailoian gudukatu ondoren,

iparraldera egin zuen alde eta han bizi da, alargun. Eskuineko maiestatea Ramon Aranbarri, gaur egun Abaroan bizi dena. Haren zaldia zaintzen Paco Mondragon, "Marruko".

Argazkiko neska-mutiko arretatsu gehienak aitona-amon errespetagarriak ditugu gaur. Haien biloben begietan, osterara, piztuta dirau betiko ilusioak.

BEHERAPENAK

MANGO

lotsagabe jazteko

Postas 5, Tfnoa: 23 04 48 GASTEIZ

**ARRASATE
PRESS**

*Bidal iezazkiguzu
zure kolaborazioak*

KAJOI TABERNA

*Jai zoriontsuak
eta urte berri ona
opa dizkizue guztioi*

Erdiko kale 22, Tfnoa: 79 32 27 ARRASATE

I
R
A
T
I

Ferrerias kalea
Tfnoa: 79 71 80

FAMILI ETA GIZARTE-HEZIKETARAKO ZENTRUA

1989-1990 IKASTURTEKO 2. HIRUHILABETEKO EGITARAUA

ARRATSALDEZ: 3,30etatik 6,30etara

- Astelehena: Puntua eta Gakorratz-lana
- Asteazkena: Psikologia - Pertsonaren Heziketa
- Osteguna: Ebaketa eta Jantzigintza
- Ostirala: Otzaragintza; Sukaldaritza - Gozogintza

GAUEZ: 6,30etatik 9etara (talde mixtoak)

- Astelehena: Sukaldaritza - Gozogintza eta Euskara
- Asteartea: Marrazkigintza eta Pintura
- Asteazkena: Sukaldaritza - Gozogintza eta Euskara
- Osteguna: Eskulanak (larru-lanketa; errusiar portzelana; hirudimentsiodunak, etab.)

GAZTEENTZAKO IKASTAROA: 6,30etatik 8,30etara

(Udaleko Gazte-Zerbitzuaren laguntzarekin)

- Astelehena: Psikologia - Pertsonaren Heziketa
- Asteazkena: Zeramika, Buztingintza
- Osteguna: Sukaldaritza - Gozogintza

Matrikula: 1.000 pta. eta ikastaroa martxoan amaituko da.
Interesatuak etorri gure Zentrura urtarrilaren 8tik aurrera 3,30etatik 8,30etara.

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Arrasate pasealekua 3 bis, Behea ARRASATE- Tfnoa:79 71 64

ARRASATE
PRESS

79 71 64

Ahate itsusiarenak

Mundu honetan beti ere zerbait egin behar, eta zuri ahate itsusiaren papera betetzea tokatu zitzaizun.

Txikitatik, eskolara heldu eta inoiz ez zinen gustora izan neskek eskaintzen zizuten tratuz. Haiek hilehoriak atsegin, eta zu beltzarana. Kaguena, sufritu egiten zenuen petarda haiek beste edonorekin zinera joaten zirela ikusita, beste edonorekin, zurekin ez.

Kuadrilan Harot buruzagi; bere eskuinean Guny, eta ezkerrean Temo. Zu beti gainontzeko lagunekin aparte, hiruren artean erabakitzen zutena itxaroten.

Behin Harot eta zu ostiaka hasi zineten, biok sutan, eta muturra berotu zeniola oroitzen dut. Guztiok ere zurekin identifikatu ginen, badakizu, nagusia gaineratzen duen morroiarekiko sortzen den mirespena.

Egun hartan, ahate itsusia izateari uko egin zeniola jakin izan nuen, eta poztu, ze demontres; Harot, Guny eta Temo nik neuk ere ez nituen neure gustoko.

Gertatutakoak eta gero, ez zintudan gehio bolada luze bateen ikusi. Entzun bai zure berri, Bilbo inguruan zeundela ez dakit zer ikasten.

Arratsalde hartan, Pakoren ostatuan agertu zinenean... ze ondo. Dastatu egin nuen zure presentzia, gozatu. Elkarrizketari ekin genion ardo pare baten aurrean, eta luzatu ere aspaldiko kontuak berreskuratuz.


Luzatu.

Bapatean Harot eta Guny sartu ziren ostatuan. Haien begiak ikusi eta berehala ohartu anfetaz gainezka zeudela, harrokeria barne-barnetik piztuta.

Berekoikeriaren jolasean aspalditik zorretan zeunden zu Harotekin; eta zor hura bertan ordaintzea bururatu zitzaizuen, konpontzea okurritu ere.

Oraindik ere ezin dut ahaztu Haroten ama, negarrez, semearen gorpu hila lastanduz.

Erramun



Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 58 76

**Gauzak gordetzeko kutxa
metalikoak
Otzaratzarrak
Giltzak gordetzeko armairuak
Erremintak eramateko gurdiak
Erremintak gordetzeko
armairuak
Lan egiteko aukiak**

Zunbeltz

Simon Arrieta Enparantza 2,
BERGARA

■ **Andu Lertxundiren ama:** Ez naiz oroitzen zein egunetan izan zen. Urtearen hondarretan, nolahi ere. Berebilean nindoan. Irratia piztu eta Andu Lertxundi elkarrizketatzen hasi zen Mertxe Ezeiza. Gaia, idazle oriotarraren ama.

Solasaldi laburra izan zen, San Prudentzioko errotatik Mondragoeraino, baina guztiz mamitsu eta atsegina. Andu hamabost urterekin gelditu zen ama barik, eta hain tarte laburrean, trazo labur, zehatz eta adierazgarritan bere ama, eta hark gaztearen bizitzan izan zuen eraginaren berri eman zigun, bat ere sentimentaltasun errazetan jausi barik. Tarte bikaina, benetan.

■ **Arrate Irratiaren diala:** Joan den abuztuan Eusko Jaurlaritzak eman zien frekuentziarekin batera, FM dialaren bazterrean bidali zuten Arrate Irratia. Ondorioz, irailetik edo, ohizko 101,5etik (dialaren erdialdean gutxi gorabehera, Loiolaren ondoan) 87,7ra pasatu da, dialaren ezkerreko bazterrean. Lehen oso garbi heltzen bazen seinalea, orain ere halaxe da, eremu laburragoa duela ematen duen arren.

Despistatu samar zabiltzaten irratizaleok, beraz, badakizue non aurkitu betiko Arrate berriztua, zuen dialaren ezkerrean, bihotzaren aldean, alegia.

■ **Urteberri goiza:** Berandu jaiki eta lerro hauek idazteari ekin diot. Kanpoan euri hotsa. Barruan J.Strauss-en musika. Izan ere, urtero bezala, hemen dugu Vienatik urteberriko kontzertu paregabea. Beste kanaletan dauden aukerak ere ez dira nolana hikoak. Bigarrenen eski jauziak, urtero legez. Eta ETBren katea bietan *Argia* dantza taldearen ekitaldi ikusgarria.

Magnetoskopioak Victoria Eugeniako emanaldia grabatzen didan bitartean, vienarraren musikarekin gelditu naiz, lerro hauek idazten lagun diezadan. Danubio Urdinaren konpasen artean, Urte Berri On zuri ere irakurle!

Joxe Aranzabal

bideoak



BIZIA LURREAN

Hona hemen mundu osoan zehar BBC telebista ingelesaren eskuetik sekulako arrakasta izan zuen seriea. Hamahiru atal ditu, eta denetan irudi zoragarriak ematen zaizkigu, munduko lekuri ospetsu eta ezkutuenetakoetatik aterak.

David Attenborough dibulgadorearen lana- Gandi eta beste filme batzuren egilearen anaia- ezin hobea. Elhuyarrek euskaratuak. Betan nahiz VHSn.

OSTADAR IRRATIA (102 F.M)

Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasiko)

Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).



gusto baduzu

■ **Alargun alegera:** Ostiralean, gaueko 9etan, Ernest Lubitssch zuzendutako filmea. Marshovia, Europako erreinu txikia, porrot egiteko zorian dago, altxorren diru iturri nagusia den alargun aberatsak heritik alde egin bait du, Parisera joateko. Errege goardia bat ere haren atzetik doa bere ondasuna berreskuratzeko. Antzesleak, Maurice Chevalier, J. MacDonald eta E. Everett Horton.

■ **Espazioko akademia:** Larunbatean, 18,40etan. Telebistarako produkzio futurista honetan, ikusgai izango da nola munduko nazioek ordezkariak bidali dituzten "Espazioko Akademiara", bertako gizakirik aipagarrienak beren eza-gutzarik aurreratuenak irakats diezaizkieten lurreko eta beste mundu batzuetako biztanleei.

■ **Huckleberry Finnen abenturak:** Hasi berria dugu telesail hau ETBn. Igande arratsaldetan, 17,20etan. Huckleberry, hamalau urtetako mutikoa, Douglas alarguna eta Miss Watsonen babespean bizi da. Hucken aita, aldi luzez desagertua, etxera itzuli da semea berreskuratzeko asmoz, baina Finn jauna alkoholzale odolgaitza da eta epaileak H. Douglas alargunarekin geratzea erabakiko du.

Bertako hitz ahaztuak

Ikastolako irakasle bati galdetuko bagenio ea zer den zortzi oin iletsu dituen xomorro txiki nazkagarria, lurrean nahiz hormatan ibil daitekeena, dudarik gabe armiarmaz ari garela erantzungo liguke. Herriko agure zahar batek ordea beste hitz bat emango luke. Berau jakin nahi baduzu asma ezazu ondorengo proba. Lehenik esaldi bat idatzi dugu, hizki batzuk sinbolo batzuzengatik ordezkatu ditugularik. Aurki ezazu zein hizki dagokion sinbolo bakoitzari eta ondoren ordezkatu hizkiok alboko hitz "sinboliko" sekretuan.

ESALDIA:

"MELOI ☒ ERA ⊙ AN ■ UEN ○ □ DUAN ARRA ☒ OIAK,
BATE □ E ZAR ☒ T ☒ RIK EGIN G ☒ BE"

HITZ "SINBOLIKO" SEKRETUA: ☒ ⊙ ☒ □ □ ☒ ☒ ■ ☒

(Soluzioak: 21. or.)

Mokordo

Horoskopoa



ARIES
Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Ustegabeko berri pozgarria jasoko duzu. Zure ahaleginak ez dira alperrikakoak izan. Hala eta guztiz ere hasitako bidetik jo behar duzu, bestela beharbada ustea ustel aterako da.



TAURUS
Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Erraz mintzen zara ezkenaldi honetan, edozein arazo dela medio. Portaera horrek traba baino ez dizu egingo besteekiko harremanetan. Zabaldu zure bihotza benetan. Edanak ez du ezer konpontzen.



GEMINI
Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Ikasi itxoiten, ez zara damutuko; bestalde, maite duzun horiek ez du ezeren errurik. Barkamen eske joatea uste baino atseginagoa da betzuetan.



CANCER
Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra

Egunero ikusi bai baina agurtzen ez duzun horrek begitan hartu zaitu, kontuz! Zure familiako zaharrek ez dute hjozrelako tratirik merezi.




LEO
Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Maite duzun horrek arazoak ditu bere ikasketetan. Laguntzen ez badiozu, beste batengana joko du. Behin-behineko lan-aldaketa horrek zure arazoak uxatzeko balio izan du. Zaindu begiak.



VIRGO
Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Zeure lanari gustua hartzen hasi zara, bapoi Nagusiak ere konturatu dira horretaz. Laster izango duzu merezi duzun ordaina. Ez bizi lanerako bakarrik, maitasunak ere badu bere garrantzia pertsonaren orekan.



LIBRA
Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Ahaztuta daukazu lagun horri lagundu behar diozu, akaso sorpresaren bat emango dizu. Zeure familiarekiko harremanak estutu beharrean zaude, ez izan horren zeurekoia.



SCORPIO
Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Gehiegi eskatzen diezu ingurukoiei, portaera hori kontuz zaindu behar duzu, bestela bakarrik gelditzeko arriskuan zaude. Eutsi ariketa fisikoari, on besterik ez dizu egiten eta.



SAGITARIUS
Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Hainbeste kezkatzen zaituzten horiek behin betirako uxatzeko, eskatu familiaren laguntza, ezezagunek ezer gutxi egingo dizute eta arazo horretan. Haurtzaroa gogora ekartzea zahartzen ari zaren seinale da askotan.




CAPRICORN
Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Azkenaldi honetan lasaia bazabilza ere, ez dago dena konponduta; oraindik ere, hasitako bideari eutsi beharrean zaude. Noizpait barre egi-tea, gorputzari ezezik izpirituari ere ondo etorriko zaio.



AQUARIUS
Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Zure lan egoera ez da hain txarra. Zeure buruarekin oso gustora ez bazau, behar bada besteak nola dabilzan ikustea komeni zaizu. Arrazoi barik kezkatzen zarela ikusiko duzu.



PISCIS
Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Zure mahaitik janari koipetsuak kentzen hasi behar duzu. Diru aldetik, laster ibiliko zara orain baino hobeto. Hala ere, horrek ez ditu zure nahi-gabeak erabat uxatuko.

I O S U

Argazkidenda

Zure argazkiak errebelatzean Kodak
erroilo bat doan edo
%20ko beherapena

**Laster koloretako argazkiak
ordu 1ean errebelatuta
Diapositibak 24 ordutan**

Argazkilaritza-ikastaroak maila guztietan

Olarte kalea, 11 tfnoa: 79 82 60 ARRASATE